www.aiaraldea.eus

AIA RAL DEA - FAK TO RIA

Aiaraldea Jaietan

2022ko udako jaiak

Bizitzeko, amesteko,

FAKTORIA

EZAGUTU GAITZAZU

www.faktoria.eus faktoria@aiaraldea.eus 688 647 942 Errotari kalea 4-8 Laudio / Araba

Egutegia

Abuztuak 04-05
Kexaako jaiak | ***10. or***

Abuztuak 06-09
Okondoko San Roman jaiak | ***17. or***

Abuztuak 08
Lantenoko Andra Mari
Zuriaren jaia | ***10. or***

Abuztuak 08-09
Luiaondoko Santo Domingo jaiak | ***9. or***

Abuztuak 09
Urduñako Orruñoko jaiak | ***24. or***

Abuztuak 10
Luiaondoko San Lorentzo jaiak | ***9. or***

Abuztuak 11-17
Amurrioko jaiak | ***42-47 or***

Abuztuak 14-16
Urduñako Kalebarriako jaiak | ***23. or***
Arrankudiagako jaiak | ***32-33. or***

Abuztuak 15
Luxoko jaiak | ***10. or***

Abuztuak 15-17
Laudioko jaiak | ***62-64. or***

Abuztuak 19-22
Arrankudiagako jaiak | ***32-33. or***

Abzutuak 21-25
Okondoko jaiak | ***18. or***

Abuztuak 24-28
Laudioko Jaiak | ***66-68. or***

Abuztuak 30-31
Soxoko jaiak | ***11. or***

Abuztuak 31
Orozkoko Jaiak | ***90. or***

Irailak 01-03
Orozkoko jaiak | ***88-90. or***
UrduFolk jaialdia | ***27. or***

Irailak 02-11
Artziniegako jaiak ***96-97. or***

Irailak 3
Kobatako San Bitores jaia| ***10. or***

Irailak 3-4
Etxaurrengo jaiak | ***10. or***

Irailak 4
Koroatze jaiak | ***24. or***

Irailak 7-9
Baranbioko jaiak | ***53. or***

Irailak 8-11
La Antiguako jaiak | ***25. or***

Irailak 11
Koroatze jaiak | ***24. or***

Irailak 17
Artziniegako Antzinako Azoka | ***98. or***

Irailak 17-18
Atxetako jaiak | ***34. or***

Editoriala

Itzulera

Bi urteren ostean, itzuli dira udako jaiak Aiaraldera. Datozen egun eta asteetan ehunka jardueraz gozatzeko aukera egongo da eskualdean. Aldizkari honetan topatuko dituzu ospakizunen egitarauak, hainbat artikulu eta elkarrizketekin batera.

Eskualde oso batek auzolanean eginiko ahaleginaren emaitza dira udako jaiak; jai batzordeek, udalek, administrazio batzarrek, elkarteek, eragileek eta norbanakoek eginiko ahaleginaren fruitua.

Aiaraldea Komunikabide Faktoriak ere bere alea jarriko du, ekintzen jarraipen berezia eginez. Jarraipen horren mugarrietako bat da esku artean duzun aldizkaria, baina ez bakarra. Datozen asteetan Aiaraldea.eus atarian emango dugu herri eta auzoetan egingo diren ekintza maratoien berri, artikulu, elkarrizketa, argazki, bideo zein zuzeneko emisio berezien bidez. Kalejira, herri bazkari edota kontzertuetan ikusiko dugu elkar!

Aiaraldea Ekintzen Faktoriak, aldiz, ateak itxiko ditu abuztuan, irailean indarberrituta itzultzeko, eskualdearen eraldaketa euskaratik eta euskaraz hauspotzen jarraitzeko prest.

Baliatu ditzagun jaiak horretarako ere: euskaraz harremantzeko, tokiko ekoizleen produktuak kontsumitzeko, euskarazko kultur sortzaileen lana babesteko edota eraso sexisten aurkako aldarri ozena plazaratzeko.

Jaiak itzuli dira Aiaraldera, bai. Baina auzolana eta elkarlana ez dira inoiz eskualdetik joan. Goazen bizitzeko ekintzen faktoriak txoko guztietan errotzera!

Argitaratzailea: Aiaraldea Koop. Elkartea **Tirada:** 8.000 ale
Lege gordailua: BI-1230-2013 **Erredakzioa:** Aiaraldea Komunikabideko erredakzioa **Prezioa:** Doan
Posta elektronikoa: erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus **Tlfonoa:** 688 84 81 52
Webgunea: www.aiaraldea.eus **Helbidea:** Errotari kalea, 4-8 pabilioia, Laudio 01400 **OHARRA:** *Aiaraldea Komunikabideak ez du bere gain hartzen elkarrizketetan adierazitakoen gaineko erantzunkizuna.*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Aurkibidea

08 |
Andere Bergaz Olabarria,
Luiaondoko jaietako dama

14-15 |
Javi Ramos Gomez 'Gipu',
Okondoko pregoilaria

22-23 |
Carlos Bergado Ruiz,
Kale Barriako Morrillona

30-31 |
Jon Arandia Isusi,
Arrankudiagako pregoilaria

38-39 |
Imanol Llano, Patri Aldama, Jokin Carames eta Jesus Zurimendi,
Amurrioko pregoilariak

48 |
Amurrioko Jai Herrikoien Aldeko Batzordea

50 |
Amurrioko Mugimendu Feminista

58-59 |
Javi Arteta,
Laudioko txupineroa

60-61 |
Sebastian Martin Manzano 'Txanin' Eta Jose Ignacio Goikoetxea 'Txetxu', Laudioko pregoilariak

72 |
Laudioko Txosna Batzordeaa

78 |
Laudioko Mugimendu Feminista

86-87 |
Agate Deuna abesbatza, Orozkoko pregoilariak

94-95 |
Eneritz Ugarriza Lado, Marisa Fernandez Diego eta Nuria Peral Lucas, Artziniegako pregoilariak

26 | Nerea Quincoces Ochoa

40 | Inhar Minguez

26 | Karrozak

70 | La Oreja de Van Gogh

75 | Suziri Jai Koordinakundea

76 | Dupla

91 | Jentilzulo kulturgunea

98 | Artziniegako antzinako azoka

Aiarako herrietako jaiak

Abuztua / Iraila

Gentza Alamillo Udaeta

Aiarako alkatea

Aiara taupaka hasi da berriro, eta COVID-19aren pandemiaren aurreko ospakizunak eta jai-egutegia erabat berreskuratu ditu. Epe luze baten ondoren, non erabaki zailak hartu behar izan diren, gaur egun, esan dezakegu udalerriak bere distira guztia berreskuratu duela, San Prudentzioren omenezko gure herriko jaietan erakutsi zen bezala. Hitzordu hunkigarria izan zen, eta danbor hotsak entzun ziren berriro, inoiz baino ozenago, Etxaurren ikastolako ikasleen eskuetan.

Gainera, gure patroiari esker, Aiarako udalerria osatzen duten 24 herriak berriro bildu ahal izan ziren, duela bi urtetik lehen aldiz, jai handi batean. Aiarako biztanle guztiena! Ondoren, maiatzean, Arespalditzan San Isidro Azoka arrakastatsua ere ospatu ahal izan genuen, eskualdeko bihotzean, lehen sektorea erabateko protagonista zela.

Orain, udaz gozatzen jarraitzeko unea iritsi da, eta, aldi berean, ilusio handiz prestatu gara iraileko lehen larunbatean San Vitoresen omenez egingo den jaia ospatzeko. Ohi bezala, hainbat ekitaldi izango dira bertan, hala nola meza, sokatira eta artzainari omenaldia, Gorobel mendilerroko Kobata aterpean.

Aiarako udalerria gogor ari da taupadaka!

Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

Elkarrizketa

“Egia da Luiaondo ‘lo-herria’ dela, baina jaietan erabat aldatzen da giroa”

ANDERE BERGAZ OLABARRIA (Luiaondo, 2001) izango da Luiaondoko aurtengo jaietako dama. Bera arduratuko da jaietako pregoia irakurtzeaz gaur arratsaldean.

Aurten zuri egokitu zaizu Luiaondoko Jaietako dama izatea. Nola hartu duzu ardura hori?

Nik banuen dama izateko gogoa, eta nahi hori adierazi nien nire familiari eta lagunei. Bozkaketa egin zenean, jende gehienak egin zuen nire alde eta oso ondo jaso nuen albistea, dama izateko gogo asko nituelako.

Zergatik nahi zenuen dama izan?

Festan duen garrantziagatik. Jende ezaguna izan da beti, eta bera arduratzen da jaietako sariak banatzeaz, besteak beste.

Zertan datza Luiaondoko Jaietako dama izatea?

Damaren funtzioak bi dira, batez ere. Alde batetik, bera arduratzen da jaietan egiten diren txapelketetan epaile lanak egiteaz eta sariak banatzeaz. Bestetik, pregoia irakurtzen du jaien hasieran, balkoitik, jende guztiaren aurrean.

Jai andana dago eskualdean udan, zerk egiten ditu Luiaondokoak berezi?

Ekintza asko daude, adin guztietara bideratuak. Jartzen den musika ere mundu guztiak du gogoko.

Gaztedi berria kuadrillako kideon artean aukeratzen duzue dama nor izango den. Belaunaldi aldaketa eman da talde horretan?

Bai. Jende nagusi gehiena Dama izan da dagoeneko, eta orain gazteon txanda iritsi da. Bagaude gazte ugari.

Luiaondo ‘lo-herria’ dela esaten da sarritan. Zuk hala dela uste duzu?

Egia da apur bat ‘lo-herria’ badela, baina jaietako egunetan erabat aldatzen da giroa.

Aiarako Jaiak

08.08 ASTELEHENA
Santo Domingo

12:00 MEZA NAGUSIA

12:30 Haurrentzako JOLASAK

14:30 HERRI BAZKARIA
Baselizako zelaia

16:30 BRISKA TXAPELKETA

17:00 TIK-TOK TXAPELKETA

21:00 ODOLOSTE JANA

21:00 Erromeria GANEKO taldearekin

22:00 BOCABEATS COMEDIA

23:00 JAIKIDE DISKODANTZA

08.09 ASTEARTEA

20:30 TXORIZO JANA
Oleta taberna

20:30 ZABALA DJ
Oleta taberna

08.10 ASTEAZKENA
San Lorentzo

11:00 TORTILLA eta PINTXO LEHIKATEA

12:00 MEZA NAGUSIA
San Lorenzo baseliza

14:30 HERRI BAZKARIA
Baselizako zelaia

16:30 TUTE TXAPELEKTA

17:00 Haurrentzako UR TXIRRISTA
Baselizako zelaia

18:00 HERRI JOLASAK

16:30 KALE ANTZERKIA

16:30 TXINTXORTA JANA

22:00 Erromeria GANEKO taldearekin

CONSTRUCCIONES
SITO UGARTE, S.L

BASERRI BERRITZEAK
TEILATUAK
KANPOALDEAK
BARRUALDEAK
ITXITURAK
PABILOIAK

Unika kalea 6, Aloria (Araba)
Tel.: 658 758 445 / 650 606 682 / 661 136 409
ugartezurimendi@gmail.com

Electricidad Albizua, S.L.
Tel. 608 87 05 13
945 89 07 02
Aldaiturriaga poligonoa, E2
AMURRIO
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

ZUTOIN
PODOLOGIA LAUDIO
OINEN ZAINTZA INTEGRALA
Podologia pediatrikoa
Azterketa biomekanikoa + 3D barne-zola
Podologia onkologikoa
Kirurgia
ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
KARMEN KALEA 15, 1.solairua LAUDIO
94 672 52 57
laudiopodologia@gmail.com

Egitarauak

Kexaa

08.04 OSTEGUNA

18:00 PROZESIOA
Elizatik baselizara

18:00 BOLA JOKOA

09.05 OSTIRALA

12:00 MEZA NAGUSIA

17:00 BOLA JOKOA

19:00 IGEL-TOKA TXAPELKETA

20:00 TXOKOLATEA

21:00 ANTXON MAGOA

Andra Mari Zuria Lanteno

08.06 LARUNBATA

12:00 MEZA

12:30 HERRI KIROLAK

17:00 PUZGARRIAK

18:00 SOKATIRA eta TXAPELA JAURTIKETA

20:30 ZOZKETA eta TXOKOLATE JANA

22:00 ERROMERIA
Egun osoan trikitia

Luxoko Jaiak

08.15 ASTELEHENA

13:00 MEZA NAGUSIA, ostean luntxa

Etxaurrengo jaiak

09.03 LARUNBATA

17:00 MEZA

09.04 IGANDEA

12:00 MEZA NAGUSIA eta birjinaren prozesioa

13:00 AIARA DANTZA TALDEA
Jarraian, tarta tradizionalak zozketatuko dira.

14:00 MEZA baselizan

14:30 HERRI BAZKARIA, Izoriako Arangutxi elkartearen eskutik

16:00 KERAMIKA TAILERRA

16:30 FALKONERIA erakustaldia

16:30 IGEL-TOKA TXAPELKETA

18:00 ARROSARIOA

20:00 ARKUMEAREN ZOZKETA

Jai Batzordeak egitarauan aldaketak egin ditzake

Kobata-San Bitores jaia

09.03 LARUNBATA

12:00 MEZA

13:00 ARTZAIN TXAKUR erakustaldia

15:00 HERRI BAZKARIA

Aiarako Jaiak

ARGAZKIA: JOSU ZALDIBAR

Soxoko jaiak

08.30 OSTIRALA

09:00 SUZIRI JAURTIKETA

09:30 SOXOKO VI. MENDI MARTXA

13:00 MEZA NAGUSIA

13:30 Herriko emakumeei OMENALDIA

13:30 TRIKI-POTEOA

18:00 Haurrentzako EMANALDIA

19:00 MUS TXAPELKETA

22:30 ERROMERIA eta DJak

08.07 IGANDEA

13:30 MEZA

13:30 TALO DASTAKETA

13:30 IGEL-TOKA TXAPELKETA

18:00 Haurrentzako JOLASAK

19:00 TUTE TXAPELKETA

21:00 HERRI PARRILLADA

22:30 ERROMERIA eta DJak

00:00 MOZORROAK eta BINGO MUNDIALA

00:30 Dantzaldiaren jarraipena eta TXOKOLATADA goizaldean

hitz zentroa
LOGOPEDIA / PEDAGOGIA
FISIOTERAPIA PEDIATRIKOA
OSASUN OROKORREKO PSIKOLOGIA
SEXOLOGIA KLINIKOA
PROFESIONAL EUSKALDUNAK ZURE ZERBITZURA
Arreta goiztiarra (0-6 urte)
Karmen kalea 39, 01400 LAUDIO hitz.zentroa@gmail.com
Tel.: 94 672 63 91 / 656 74 27 22

INSTALACIONES RAGA IBARRONDO
ITURGINTZA BEROKUNTZA GASA AIRE GIROTUA
Denda 945 30 37 35
Jesús 636 42 80 15
Juanmi 620 63 81 38
Susana 636 77 74 55
José Madinabeitia, 1
Amurrio
ragaibarrondo@gmail.com
www.ragaibarrondo.com

Okondoko jaiak

Abuztuak 8-25

Babestutako edukia

Jon Escuza del Campo

Okondoko alkatea

Okondok bere ohiko erritmoa berreskuratu du bere jai eta topaketa ezagunenekin. Esaterako, maiatzaren amaieran egin zen Baserriaren Azokaren kontua, edo, oraintsuago, uztaileko Txakolin Jaiaren kasua. Bi jaiak pandemiaren ondorio soziosanitarioek behartuta bi urtez geldirik egon ondoren gauzatu ahal izan dira. Orain, uda honetan, normaltasun berriarekin, beste data esanguratsu batzuk ospatu ahal izango dira, hala nola San Roman Jaia, datorren abuztuaren 9an, edo San Bartolome, abuztuaren 24an. Espero eta desio dut ospakizun hauek COVID-19aren aurreko garaietako harrera bera izatea. Halaber, urriaren lehen hamabostaldian, Irabieneko jaiez gozatzeko aukera izango dugu. Okondo aniztasun eta aberastasun kulturalaren sinonimoa da, elkarte guztiek egiten duten lanari esker. Horregatik guztiagatik, udalerriko herritar guztiak animatu nahi ditut, bisitatzen gaituzten pertsonez gain, gure jai eta ospakizunez errespetuz, alaitasunez eta, batez ere, ilusio handiz gozatzera.

Gora Okondoko jaiak eta bere xarma!

Elkarrizketa

“Herriarentzat diren gauzetan ekarpenak egiten asko gozatzen dut beti”

JAVI RAMOS GOMEZ ‘GIPU’ (Hernani, 1952) izango da Okondoko pregoilaria. Herriko ekintzetan zein elkartasun ekimenetan laguntzaile izanagatik omenduko dute.

Zer dela eta hasi zinen boluntario proiektu desberdinetan?

Hernanikoa naiz jaiotzez, horregatik deitzen naute Guipu, gipuzkoarra izateagatik, Zallan bizitzen egon nintzen gaztetan aitaren lanagatik; baina Okondon 18 urte baino gehiago daramatzat bizitzen.

Okondon ekimen desberdinetan hartu duzu parte. Zeintzuetan?

Eskola kirolean urte asko igaro ditut errugbian eta eskubaloian. Semea futbolean hasi zenean, mendian hasi nintzen. Elkartasun ekimen batean hankarik gabeko mutil bat igo genuen Reglero mendira, eta orduantxe zaletu nintzen Gasteizko Mendi Solidarioak elkartean. Spiderabel ezagutu nuen bertan, eta AEFAT zein ELA gaixotasuna dutenen elkartea laguntzeko ekimenetan hartu dut parte geroztik. Lehen korrika egiten ibiltzen nintzen, eta orain laguntzen: markak ibilbidean jartzen, txirrindularitza lasterketetan boluntario... Laguntzeko prest egoten naiz beti, ahal dudan heinean bizitza soziala, familiarra eta laborala uztartzen ditut.

Zein ekimen nabarmenduko zenituzke?

2016an Zallako mendietara 12 orduz igotzeko erronka gogoan dut. Okondoko Otaolako ermitan ere erronka berezia dut: igoera bakoitzean AEFAT edo ELA laguntzeko diru donazioa egiten dut... Urtero aldatzen dut diruz laguntzeko elkartea. Dinamika sinplea da: ni -edo beste baten bat- igotzen den aldiro diru kopuru bat jartzen dut elkartearentzat.

Okondoko Jaiak

Zein da errekorra?

Errekorra 321 igoeran dago (bost pertsona igotzen baidra, 5 igoera kontatzen ditut). Parte hartu nahi duenak argazkia bidaltzen badu, kontuan hartzen dut ere: guipu5@hotmail.com helbidera bidali behar dira irudiak horretarako.

Zein proiektu dituzu egun esku artean?

Spiderabelekin AEFATen jende asko laguntzen dugu. Bartzelonako maratoian lagundu nuen lehenbizikoz behar berezidunak eramaten. Esfortzu handia da. Ivan de la Cruz laudioarrarekin prestatu nuen lasterketa hori. Orain, laguntzeko ez bada ez dut korrika egiten. Ez dut markarik lortu nahi, jendea laguntzea baizik. Sekulakoa da jasotzen duzun eskerra. Horrek ez du preziorik. Okondon futbol epaile gisa aritu izan naiz, baita frontenisean ere. Txakolin Egunean urdaia egiten, Baserri egunean auzolanean... Laguntza behar den aldiro, aukera badaukat, ekarpena egitea gustatzen zait.

Pregoia prestatu al duzu?

Ez, eta ez dut asmorik ere. Azken unera arte, bizipen eta abentura asko izango ditut, eta ez dut oraindik prestatu nahi. Falzesera goaz laster "ezindu" bat laguntzera mendi maratoi erdia egiten. Meritua ez da guk egiten duguna, norengatik egiten dugun baizik. Familiarekin sortzen den sarea eta konexioa ere izugarria da.

Nola ospatuko dituzu aurtengo jaiak?

Lanean, beraz, lasai ibili beharko dut. Udan, baina, Nafarroako erronka (falzesekoa) izango dut, eta gero Okondon Agility txapelketan lagunduko dut, duela 3 urte bezala. Pirineoetara ere joateko asmoa dut, baina ziur kontu arraroren bat ere ateratzen dela!

Okondoko boluntariotza, bizi dago?

Jaietan, duela urte batzuetatik hona, jendea asko inplikatzen da: ginkana egiteko makil bati eutsi behar bazaio, jendeak ez du arazorik. Herriarentzat diren gauzetan ekarpenak egiten asko gozatzen dut.

Zein da jaietatik gehien gustatzen zaizun egun edo ekintza?

Eguneko giroa nahiago dut, nahiz eta gauak batzutan harrapatu. Txapelaren eguna asko gustatzen zait, azkenengo eguna, herriko denak batzen garelako. Umerik ez dudan arren, Xaiborrekin ere oso ondo pasatzen dut, haurrek oso ondo pasatzen dute kamioi gainean. Paellen eguna ere polita da: batzuekin txorizoa jan, besteekin gazta...

Zer nabarmenduko zenuke Okondoko jaietan sortzen den girotik?

Jendea oso aurrera joatekoa da. Jendea prest dago gauzetan laguntzeko. Esaterako, apar festa antolatu zen duela gutxi; eta gurasoak inplikatu ziren.

Bi hamarkada daramatzazu Okondon bizitzen. Zertan aldatu da herria?

Lehen herri itxia zen Okondo, baina orain edonorekin joan zaitezke trago bat hartzera. Gazteek euren lagunak herri handietan dituzte: Zallan, Laudion... Hala ere, ekintzetan geroz eta gehiago animatzen ari da jendea parte hartzen eta laguntzen. Herriarentzat zerbait polita egitea bada kontua, zergatik ez lagundu? Hil arte, ahal dudan dena egingo dut laguntzeko beti.

Okondon badira beste zenbait jai edo festa berezi.

San Romaneko jaietan gutxiago egoten naiz, baina San Sebastianak oso gogoko ditut, Otaolakoak baitira. Zuhaitzaren prozesioa egiten da han, eta sekulako giroa egoten da.

Baduzu egitea gustatuko litzaizukeen erronkarik buruan?

Mila istorio ditut, baina ezer finkorik ez. Himalaian trekking bat egitea gustatuko litzaidake, baina elkartasun ekimen gisa ekonomikoki zein laboralki ezinezkoa zait.

Zer ekarpen egiten dizute ekimen solidarioek zuri ba, pertsonalki?

Asko. Ibili ezin den pertsona bat Babio edo Gorbeiara igotzeak asko asetzen du norbera. ELA gaixotasuna duten 6 eraman genituen behin Gorbeiara, eta oso polita izan zen. Lekzio handiak ematen dizkizute horrelakoetan: huskeriengatik kezkatzen gara bizitzan.

San Roman jaiak

San Roman jaiak, Okondoko abuztuko lehen asteburua pizteko prest

ABUZTUAREN 6TIK 9RA OSPATUKO DITUZTE SAN ROMAN AUZOKO JAIAK. ASTEARTEA IZANGO DA EGUN HANDIA, HILAREN 9A HAIN ZUZEN.

Hasi da Okondoko festa maratoia. Iragarpenetan hori antzeman daiteke, behintzat. Abuztuan bi ospakizun izango dira nagusi. Batetik, San Roman jaiak, abuztuaren 6tik 9ra antolatuko dituztenak. Bestetik, San Bartolomeren omenezko egitaraua; alegia, herriko jai nagusiak. Abuztuko lehen larunbatean, hilaren 6an, abiatuko dituzte San Roman auzoko ekitaldiak. Bolo txapelketa izango da lehenbiziko jarduera, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 21:00etara jokatuko dena. Igandean amaituko da ekimena, 11:00etatik 12:30era, hain zuzen. Astelehena izango da “egun handia”. Hala ere, iluntzean ekingo diote egitarauari, Party Man musika jartzailearen Skywalker show lanarekin. Ondoren, odoloste jana egongo da, 20:00etatik aurrera alegia. Gainera, Florentxu y sus muchachos taldearen erromeriak girotuko du afalordua, eta gero mariatxiek emango diote jarraipena gauari, 22:30etik aurrera. Asteartean, abuztuaren 9an, San Romaneko elizan, santuaren omenezko meza egingo dute 12:30ean, eta gero mokadua banatuko dute bertaratutako jende ororentzat. Trikitilariak arduratuko dira giroa pizteaz. Txapelketak izango dira protagonista ondorengo orduetan: 13:30ean igel jokoan lehiatuko dira herritarrak, eta 17:30ean briskan.

Alpargata jaurtiketa

Ohiko ekintzetatik harago, badira San Roman jaiak berezi bilakatzen dituzten beste zenbait jarduera ere. Horien artean dago alpargata jaurtiketa, abuztuaren 9an 19:30ean egingo dutena. Edozelan ere, herri afaria izango da ekimenik jendetsuena, ohiturari jarraiki, abuztuaren 9an, 21:00etan gauzatuko dutena. Auzokide zein okondoarrek elkarrekin afaltzeaz gain, dantzatzeko eta parranda egiteko aukera ere izango dute, disko jaia iragarri baitute gaueko hamabietatik aurrera.

Okondoko Jaiak

San Romango Jaiak

08.06 LARUNBATA

11:00 BOLO TXAPELKETA
Bolatokia

16:00 BOLO TXAPELKETA
Bolatokia

08.07 IGANDEA

11:00 BOLO TXAPELKETA
Bolatokia

08.08 ASTELEHENA

19:00 PARTY MAN "Skywalker Show"

20:00 ERROMERIA Florentxu y los muchachos taldearekin eta ODOLOSTE JANA

21:00 MARIATXIAK

23:00 MUS TXAPELKETA

23:30 DISKO JAIA

08.09 ASTEARTEA

12:00 MEZA NAGUSIA San Romanen omenez

12:30 PINTXOAK eta TRIKITRIXA

13:30 IGEL-TOKA TXAPELKETA

17:30 BRISKA TXAPELKETA

18:30 HAURRENTZAKO JOLAS PARKEA

20:00 ALPARGATA JAURTIKETA

21:00 HERRI AFARIA

00:00 DISKO JAIA

Piensos Valle de Ayala
Delicias del Mediterráneo
Zuhaitzeko laranjak
-
Piper freskoak, erreak eta poteetan sartuak
Zudubiarte 2, Okondo 660 62 75 74 / 675 94 28 04
agroalimentariaenkartaciones@gmail.com

ZUTOIN
PODOLOGIA LAUDIO
OINEN ZAINTZA INTEGRALA
- Podologia pediatrikoa
- Azterketa biomekanikoa + 3D barne-zola
- Podologia onkologikoa
- Kirurgia
ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
KARMEN KALEA 15, 1.solairua LAUDIO
94 672 52 57
laudiopodologia@gmail.com

San Bartolome jaiak

08.21 IGANDEA

12:30 MEZA NAGUSIA

13:00 ITZALDE ABESBATZAren kontzertua

13:00 HERRI BAZKARIA
Frontoia

14:30 MUSIKA emanaldia
Frontoia

08.22 ASTELEHENA

11:00 BOLA-JOKO txapelketa
Bolatokia

17:00 FUTBITO txapelketa
Futbol zelaia

17:00 BOLA-JOKO txapelketa
Bolatokia

20:00 BINGOA
San Bartolome enparantza

14:30 Aire zabaleko zinema: "CRUELLA"
San Bartolome enparantza

08.23 ASTELEHENA

11:00 PAELLA LEHIAKETA
San Bartolome enparantza

13:00 TXUPINAZOA eta PREGOIA, Javi Ramosen eskutik

14:00 HERRI BAZKARIA

17:00 MUS TXAPELKETA

18:00 JOLASAK eta "MOLTO" LASTERKETA
Frontoia

18:00 EGURREZKO JOLASAK
Frontoia

20:30 PURO RELAJO eta DJ MARKELIN

08.24 ASTEAZKENA

11:00 DANTZA-PLAZA
San Bartolome enparantza

11:00 AQUAGYM eskola, Talde Sport-ekin
Igerilekuak

12:00 TXU-TXU trena
Frontoia

12:30 MEZA

13:00 TRIKITIXA eta BURUHANDIAK

13:30 TXORIPAN JANA
San Bartolome enparantza

16:00 FUTBITO TXAPELKETA
Futbol zelaia

17:00 TUTE TXAPELKETA
San Bartolome enparantza

17:00 EZKONGABE eta EZKONDUEN arteko futbol partida
Futbol zelaia

18:00 TXAKOLINAREN INGURUKO HITZALDIA, Astobiza Txakolinaren eskutik
San Bartolome enparantza

19:00 Zirku ikuskizuna; "MUTE"
San Bartolome enparantza

20:30 EUSKOLABEL sahieski eta hanburgesak
San Bartolome enparantza

22:30 Berbena RITMO taldearekin

01:30 DISKOFESTA

08.25 OSTEGUNA

11:00 TORTILLA TXAPELKETA
San Bartolome enparantza

11:30 HAURRENTZAKO PARKEA eta ZEZEN-MEKANIKOA
Frontoia

12:30 Hildakoen omenezko MEZA

17:00 BRISKA TXAPELKETA

17:00 PUZGARRIAK eta APAR FESTA
Frontoia

19:00 HERRI KIROLAK
San Bartolome enparantza

21:00 ERROMERIA Continente taldearekin
San Bartolome enparantza

22:00 MOZORRO LEHIAKETA

22:00 ERROMERIA Continente taldearekin eta TXAPELA JAURTIKETA
Frontoia

Lau egunetan, ia 40 ekintza pilatuko dituzte Okondoko San Bartolome jaiek

ABUZTUAREN 21ETIK 25ERA OSPATUKO DITUZTE OKONDOKO FESTA NAGUSIAK. ABUZTUAREN 23AN IZANGO DA TXUPINAZOA, BAINA IGANDETIK OSTEGUNERA LUZATUKO DA JAIA.

Edadetuek hasiko dituzte Okondo festak. Abuztuaren 21ean abiatuko dute programazioa, Nagusien Egunarekin. Itzalde abesbatzaren kontzertua egongo da horretarako 13:00etan, eta herri bazkaria egingo dute frontoian ondoren. Arratsaldean, aldiz, musika emanaldiarekin dantzatuko dute herritarrek.

Astelehenean, abuztuaren 22an, bola joko txapelketa antolatuko dute goiz eta arratsaldez. Ez da hori izango, ordea, ekimen bakarra: 17:00etan futbito txapelketak bilduko ditu kirolzaleak. Bingoarekin jarraituko du jokoak iluntzean, eta aire zabaleko zinemarekin bukatuko dute eguna, Cruella filma ikusten.

Asteartean izango da izango da txupinazo eguna, abuztuaren 23an. 11:00etan paella txapelketarekin helduko diote txanpa nagusiari San Bartolome plazan, eta 13:00etan irakurriko du pregoia Javi Ramos Guipuk. Hala, sari banaketaren ondotik herri bazkaria egingo dute: paella jana. Mus txapelketa eta umeen jokoekin emango diote segida aureratu dutenez, 'molto lasterketa' barne. 20:30ean Puro Relajoren kontzertuak lehertuko du jai giroa, eta DJ Markelinek hartuko dio lekukoa gero. Okondoko Udalak adierazi duenez, abuztuaren 19tik 23ra Ihes gela ere egongo da okondoarren eskura.

Gauzak hala, dantzan helduko diote asteazkenari askok. Izan ere, dantza-plaza eta aquagym klaseak egongo dira abuztuaren 24an -plazan eta igerilekuetan, hurrenez hurren- 11:00etatik aurrera. Horrez gain, 'txu-txu trena' ariko da kalerik kale 12:00etan eta 16:00etan alegia. Eguerdian Itzalde abesbatzarekin meza, trikilari eta buruhandiekin kalejira eta txoripan dastaketaren txanda izango da. Futbolak beteko du arratsaldeko txanpa: futbito txapelketako finala jokatuko dute 16:00etan, eta 'Ezkongabe eta ezkonduen arteko partida' deitu dute ondoren, tute txapelketaren aurretik. Edozelan ere, bestelako ekintzek ere edukiko dute lekua. Horren adibide dira txakolinaren inguruko hitzaldi, erakustaldi eta dastaketa. Zirkua ere ikusteko parada eskainiko dute herrian, 19:00etan Mute emanaldia taularatuko baitu Orain Bi konpainiak. Indarrak berreskuratzeko saiheski eta hanburgesa jana eskainiko dute gauean, Ritmo taldearen berbenaren eta DJ diskofestaren aurretik.

Abuztuaren 25ean bukatuko dira San Bartolome jaiak. Alabaina, tortila txapelketan neurtuko dituzte kozinatzeko trebetasunak lehenbizi. Horrez gain, 11:30etik 14:00etara umeentzat jolas parkea eta zezen mekanikoa muntatuko dituzte. Azken trakak osagai ugari metatuko ditu arratsaldean zehar, baina: briska txapelketa, apar festa, plater tiroketa, herri kirolen erakustaldia eta herri kirolak, besteak beste. 22:00etan deitu dute, ordea, ekintza izarra: mozorro lehiaketa. Izan ere, okondoar ugarik hartzen dute parte. Azken notak, baina, Continente erromeriaren esku geratuko dira, 23:00etan kontzertuarekin festak itzali arte. "Atsedenaldian txapela jaurtiketa egongo da", erantsi du Udalak.

Urduñako kale eta auzoetako jaiak

Abuztua / Iraila

Itziar Biguri Ugarte

Urduñako alkatea

Itxaronaldia luzea izan da, bai; bi urteko geldialdiaren ondoren, baina, herrietako eta auzoetako jaiak ospatzeko gogoa azal-azalean dago berriz ere. Hala sentitu dugu gure jaietan, aurtengo Otxomaioetan, eguraldiak lagunduta, gainera! Igarotako garai gogorrak gorabehera, kemena eta poza ez zaizkigu agortu. Hiritarren zein tokiko elkarteen inplikazioa eta ilusioa izugarriak izan dira eta gure beste jaiak maila berean ospatzen jarraitzea espero dugu! Orain, auzoetako eta Larruazabalgo herrietako jaien zain gaude, beti bezala gozatzeko ilusioarekin eta ekitaldi bat bera ere galdu nahi izan gabe. Urdufolk jaialdiaren 10. edizioa ere izango dugu! Mugarria da guretzat, ibilbide luze eta esfortzu handi baten adierazgarri baita, eta emakumeak erdigunean jartzea izango da gure aurtengo apustua. Ondo antolatu beharko gara erritmo honi eusteko. Horrenbestez, beste behin ere, eskerrak eman nahi dizkiegu bihotz-bihotzez urteetan zehar jaiak antolatzen, mantentzen eta, azken finean, herriak eta auzoak zaintzen dituzten elkarte, eragile eta pertsona guztiei. Auzolanari esker egiten dute aurrera herrietako eta auzoetako jaiek eta, eginkizun horretan, guztion lana goragarria da! Gora zuek! Gozatzen ikusiko dugu elkar!

Auzolanari esker egiten dute aurrera herrietako eta auzoetako jaiek. Gora zuek!

URDUÑA Berezko hiria

ORDUÑA Ciudad natural

Elkarrizketa

“Gasteizko Zeledonek baino bi urte gutxiago ditu Morrillonarenen jaitsierak, 50 urte baino gehiago”

CARLOS BERGADO RUIZ (URDUÑA, 1963) IZAN DA AZKEN BOST ALDITAN MORRILLONA URDUÑAN. ZELEDONEN ANTZERA, 50 METROKO JAITSIERA EGITEN DUTE ABUZTUAREN 15EAN BAINUETXETIK FORU PLAZARA.

Zer suposatzen du urduñar batentzat Morrillona izatea?

Ohorea. Morrillon, berez, nire osaba Patxiren lagun kuttuna zen. Morrillo abizena zuen. Foru plazako etxe batetik, Kale Barria parean, Zumalakarregiren estatuaraino botatzen zen Morrillon, sekulako pertsona zen. Fardoak lotzeko sokarekin eta polearekin egiten zuten jaitsiera, gaur egun kartzelara joango lirateke hori egiteagatik.

Bera hiltzean, beste Morrillon bat egon zen, Aduanako lehen solairutik jaisten zena. Gaixotasun batekin hil zen, eta horregatik proposatu zidaten niri.

Zenbat urte daramatzazu tirolinarekin jaitsiera egiten?

Duela zazpi urte hasi nintzen, pandemiagatik bi urteko etenaldia egon bada ere. Baiezkoa ematea kosta zitzaidan. Ez nuen bertigorik, ohitua nago altueran ibiltzera, eraikuntzan egiten baitut lan.

Nola oroitzen duzu lehen aldia? Urduri?

Bai. Aduana itxita zegoen, ez zegoen argirik.... Mugikorra erabili genuen linterna gisa. Nerbioengatik lehen aldian botatzera nindoala, langileak esan zidan: “Itxaron, itxaron, ez dakidala lotuta zauden!”.

Ahal bezala heldu, eta lotuta nengoen, bai, eta oso ondo atera zen. Izugarria da. Foku zuri handi batekin argiztatzen da Morrillona (ni), eta itzalak oso efektu polita egiten du bainoetxeko paretan.

Noiz edo nolatan sortu zen jaietako ekimen berezia?

Gasteizko Zeledonek baino bi urte gutxiago ditu Morrillonak, 50 urte baino gehiago. Istorioa edo ideiaren jatorria, Joakin Morrillorena da. Tertangakoa zen Morrillo, eta Jose Luis Biguri eta hauekin ibiltzen zen poteoan. Ardoak edaten zeuden egun batean, Gasteizen panpina botatzen zutela egon ziren komentatzen, eta... ‘zergatik ez zara botatzen zu?’. Esan eta egin. Horrela hasi zen txufla, eta urteetan jarraitu dugu, gaur arte.

Noiz aldatu zen jaitsiera ibilbidea, etxebizitzatik Aduanara?

Duela 15-16 urte gutxi gorabehera. Lehen Urduñako batek egiten zuen tirolina muntaketa, baina segurtasun baldintzak exijitzen hasi zirenean aldatu

Urduñako Jaiak

egin behar izan genuen. 50 metro inguru ditu ibilbideak, eta 14 metroko desnibela dago.

Kale Barriako jaietatik zein da gogokoen duzun ekintza?

Kaleko guztientzat herri bazkaria egiten dugu. Gauean, berriz, Morrillonaren jaitsiera eta gero (abuztuak 15) jende guztiarentzat luntxa prestatzen dugu, debalde. Bestalde, haurrentzat jolasak egiten ditugu, nagusien meza eta abar. Mezaren ondoren, kaleko nagusienari makila eta lore sorta oparitzen dizkiogu.

Ohikoak dira Urduñako kaleetako jaiak. Ohitura handia dago?

Lehen gehiago zeuden, Santa Klarakoak, esaterako. Orain Terrerokoa berreskuratu da. Arazoa gazteena da. Jaia nahi duenak, lan egin behar du ere. Niri asko gustatzen zait parranda, horregatik jarraitzen dut; baina gazteek ez dute lanik egin nahi, dibertitu bakarrik. Errelebo faltagatik zenbait jai galdu dira.

Zer espero duzu aurtengo jaiez?

Ondo ateratzea, eguraldi ona egitea, eta batez ere, inolako eraso matxistarik ez egotea.

Kale Barria

08.14 IGANDEA

17:30 TXUPINAZOA

17:45 SASKIGINTZA TAILERRA

18:00 JOLASAK

20:00 SOKAMUTURRA

20:30 IV. PATATA ZURIKETA LEHIAKETA

21:30 KALEKO ZINEMA

23:00 BINGO HERRIKOIA

08.15 ASTELEHENA

12:00 SUZIRI JAURTIKETA

12:15 BURUHANDIAK

12:30 DANTZA POTEOA

13:30 TXAPELA JAURTIKETA

14:30 AUZO BAZKARIA

17:00 MUS TXAPELKETA

19:00 IGEL-TOKA TXAPELKETA

19:30 IPUIN KONTALARIA

20:30 "MORRILLOIaren EHIZA"

21:30 "MORRILLOIaren JAITSIERA"

21:30 HERRI-AFARIA

23:00 ERROMERIA eta DJ FESTA

08.16 ASTEARTEA

10:00 DIANA, suziri jaurtiketarekin

10:30 LORE ESKAINTZA

12:30 MEZA

13:30 KALE ANIMAZIOA trikitrixarekin

16:00 Nagusiei BISITA, Udal Egoitzan

16:00 IGEL-TOKA TXAPELKETA

17:30 TUTE TXAPELKETA

18:30 TXOKOLATADA

19:00 BURUHANDIAK

20:00 ZOZKETA; "San Rokeren miraria"

20:30 JAI AMAIERA

Egitarauak

San Roman jaia

08.09 ASTEARTEA

09:30 DIANA Getxa Goi txistu taldearekin
Orruño kalea

12:00 MEZA eta LUNTXA
San Roman baseliza

17:00 MUS TXAPELKETA

18:00 JOLASAK, Bihotza Konpartsaren laguntzarekin
Orruño kalea

18:30 TXOKOLATEA
Orruño kalea

19:00 BURUHANDIAK
Orruño kalea

20:00 DANTZALDIA DJ Juanmarekin
Orruño kalea

Koroatze jaiak

09.04 IGANDEA

09:00 XXII. MARMITAKO TXAPELKETA (Bizkaiko txapelketa izango da)
Foru Plaza

09.11 IGANDEA

09:30 VII. EUSKAL KANTA HERRIKOIEN TOPAKETA, Santa Zezilia bandaren laguntzarekin
Foru Plaza

La Antiguako jaiak

09.08 OSTEGUNA

12:30 KANPAI DANGADA

13:00 MEZA NAGUSIA eta HAMAIKETAKOA
Antzinako Amaren Santutegia

09.09 OSTIRALA

17:30 TXUPINAZOA

18:00 HAURRENTZAKO JOLASAK

20:00 TXOKOLATADA

22:00 BERBENA

09.10 LARUNBATA

10:00 MENDI MARTXA

11:00 TORTILLA LEHIAKETA

13:00 Tortillen AURKEZPENA eta EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

15:00 AUZO BAZKARIA

17:00 BRISKA TXAPELKETA

17:30 Haurrentzako JOLAS PARKEA

20:00 DANTZALDIA atzoko gazteentzat

22:30 DJ RA

03:00 BERAKATZ ZOPA jana eta ZOZKETA

La Antigua auzoa festak berreskuratzeko gogo biziz

Urduñako auzoetan ere ari da festa gogoa berpizten. Pandemiak eragindako bi urteko etenaren ostean auzokideen elkargune bilakatuko dira berriro ere abuztu eta iraileko ospakizunak.

Asteburu bete ekintza

La Antigua auzoan irailaren 8tik 10era ospatuko dituzte jaiak, eta bertako jai batzordeko kideek egitarau oparoa prestatu dute herritarrak elkartzeko asmoarekin. Txupinazoa irailaren 9ko arratsaldean jaurtiko duten arren, aurreko egunetik igarriko da jai-giroa La Antiguan, ostegun eguerdiko kanpai dangada eta hamaiketakoarekin.

Ekintza gehienak irailaren 10ean egingo dituzte, larunbatean. Goizean goiz mendi martxa egingo dute, baita tortilla lehiaketa ere. Auzokide guztiek batera bazkalduko dute 15:00etan, eta haur zein nagusientzako ekintzak egongo dira arratsaldean. Gauean DJ Ra-k 03:00ak arte luzatuko du musika, ordu horretan berakatz zopa janaz eta saldutako boletoen zozketa eginez, agurtuko dituzte 2022ko jaiak.

ZUTOIN
PODOLOGIA LAUDIO
OINEN ZAINTZA INTEGRALA
Podologia pediatrikoa
Azterketa biomekanikoa + 3D barne-zola
Podologia onkologikoa
Kirurgia
ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
KARMEN KALEA 15, 1.solairua LAUDIO
94 672 52 57
laudiopodologia@gmail.com

Elkarrizketa

“Euskal folkaren ordezkari moduan arituko gara irailean Urdufolk jaialdian”

Kuttune taldeko kidea da **NEREA QUINCOCES OCHOA** (Artziniega, 1993). Urdufolk jaialdian aurkeztuko dute lehen diskoa, Hauxe da! izenekoa.

Iaz argitaratu zenuten Kuttune taldearen lehen lana, Hauxe da! diskoa. Zer nolako bilakaera izan du taldeak ordutik hona? Nola bizi izan duzu?

Oso esperientzia ona izan zen diskoaren grabaketarena. Crowfundingak balio izan zigun jarraitzaile sare bat eskuratzeko. Grabaketa nahiko zaila izan zen, diskoa konplexua delako soinu aldetik: perkusio asko dago, instrumentu oso ezberdinak... Mecca estudioan grabatu genuen, Oiartzunen, Mikel Eceiza teknikariarekin, eta oso ondo moldatu ginen, pozik atera ginen lortutako emaitzarekin. Harrera nahiko ona izan du lanak. Iazko udan aurkeztu genuen, Bakioko Nazioarteko Folk Jaialdian.

Aurkezpen biran murgilduta zaudete uneotan, ezta?

Bai, badirudi orain ari garela martxa gehiago hartzen. Aurkezpenaren ostean kostatu zitzaigun emanaldiak lotzea, pandemia zegoelako eta taldea berria zelako. Uda honetan abiatu dugu bira. Hiru kontzertu eskaini ditugu uztailean, eta beste lau ditugu lotuta, abuztua eta iraila artean. Gordexolan arituko gara abuztuaren 28an, irailaren 3an Urdufolken egongo gara, 9an Etxarri Aranatzen (Kultur jaialdiaren barruan) eta 11n Folkez Blai jaialdi-lehiaketan, Ermuan. Ilusio handia egiten digu Urdufolkeko zitak, Las Migas taldeak joko duelako gure ostean. Judit Neddermann ere egongo da jaialdian... oso kartel ederra osatu dute. Euskal folkaren ordezkariak izango gara bertan, eta hori oso positiboa da guretzat. Zaila da proiektu berriak aurrera ateratzea.

Horregatik, asko eskertzen dugu ikusgarritasun hori eman izana.

Euskal folkaren ordezkariak izango zaretela diozu, baina zuen musikak askoz iturri gehiagotatik edaten du, ezta?

Bai. Egia da abesti gehienak euskaraz direla, konpozisio propioetatik edota artxiboetatik erreskatatutako abestietatik sortuak. Baina baditugu baita galizierazko bat eta gaztelerazko beste bi kantu. Folklorea Euskal Herriko ikuspegitik egitea dugu helburu, baina bestelako lurralde batzuetako musikak ere baliatzen ditugu. Fusioa da gure ardatza. Ez dugu hemengo 'jota' soil bat jotzen. Instrumentu afrikarrekin nahasten dugu, adibidez. Erritmo nahasketa asko egiten ditugu: musika afrikarrari hemengo ukitua ematen diogu, edota Galiziako muñeira bati Afrikako erritmoak gehitu. Doinu afro-kubatarrak ere jorratzen ditugu... Ekialde Hurbileko instrumentuak erabiltzen ditugu baita, Uta kasu (Espainiako lautearen modukoa dena). Bendirra ere jotzen dugu, ekialdeko panderoa dena.

Funtsean, gure kultura nahasten dugu gure inguruan dauden beste kultura batzuekin. Guk badugu gure folklorea, baina gurekin elkarbizitzan dauden beste kultura batzuekin ere egiten ditugu nahasketak. Nik musikari afrikar eta kubatarrekin jo dut. Gurekin bizi diren sortzaileak dira, baina gure musikak ez dira fusionatzen normalean, beste toki batzuetan bezala. Hori da gure helburua, nahasketa hori erdiestea.

Zer topatuko du Kuttuneren kontzertura bertaratzen denak? Ezberdintasun asko daude diskoaren eta zuzenekoaren artean?

Hasieratik saiatu gara diskoan entzuten dena zuzenekoa bezalakoa izaten. Ez dago musika-kapa gehiagorik, oso fidela da errealitatean entzuten denarekiko. Zuzenekoa dinamikoa izaten ahalegintzen ari gara. Abestiak oso ezbedinak dira elkarren artean: batzuk perkusio asko daukate, beste batzuk bakarkakoak edo ut bidezko melodia intimoak... Horregatik, oholtzan mugimendu asko egiten saiatzen gara. Ez da emanaldi estatiko bat, agertokiko toki batetik bestera mugitzen gara, jotzen ari garen instrumentuaren arabera.

Kontzertu batetik bestera igaroko duzue uda. Zein plan duzue udazkenera begira?

Diskoari ikusgarritasuna ematen gabiltza une honetan. Gauzak hala, ahalik eta gehien jo nahi dugu hemendik urte amaierara bitartean, Euskal Herrian zein atzerrian. Horrez gain, ideiak biltzen ari naiz, gauza txikiago eta ezberdinago bat grabatzera begira. Jotzea eta konposatzen jarraitzea da plana.

UrduFolk jaialdia

09.01 ASTEAZKENA

17:30 Kontzertu didaktikoa IÑAKI PLAZA eta ION GARMENDIAren eskutik
Udal igerilekuak

09.02 OSTEGUNA

19:30 Kalejira EL TRASNO gaiten bandarekin
Herrian zehar

21:00 Kontzertuak; JUDIT NEDDERMAN eta LAS KARAMBA
Foru Plaza

09.03 LARUNBATA

13:00 Kalejira EL TRASNO gaiten bandarekin
Hirian zehar

17:30 Hitzaldia Koldo Ulibarriren eskutik: "TXISTUAREN HISTORIA, 'ORDUÑAR ERARA'"
Alondegia

21:00 Kontzertuak; KUTTUNE eta LAS MIGAS
Foru Plaza

09.04 IGANDEA

17:30 TXOMIN & TXISTUMAN "DESKONTZERTUA"
Herrian zehar

Arranku-diagako jaiak

Abuztuak 14tik 22ra

Txutxi Ariznabarreta

Arrankudiaga-Zolloko alkatea

Bi urte eta gero, barriro Andramari jaiak! Konfinamendu, maskara, debeku eta distantzia garaiek hankaz gora jarri ziguten gure bizitzak eta, oraindik ere, zuhurtziaz jokatu beharrean gaude. Pandemiak sufrimendua ekarri duen etxe guztietara elkartasun osoa eta besarkadarik samurrena bidaltzen dogu. Baina atsekabe guztien gainetik etorkizuna eraikitzen jarraitu behar dogu: elkar zaindu, elkarbizitza sustatu, ametsak eta bizipoza konpartitu, eta guztiok zoriontsu bizitzeko herria egiteari ekin. Andramari, kofradia eta berakatz eguna. Umorea eta alaitasuna. Uribarriko Sanpedroen eta Basakoetxeko erromeriaren ostean, hemen dira Andramari jaiak, geroago etorriko dira Atxetakoak eta Zolloko sanmartinak. Eskerrik beroenak jai batzordeei eta jaien antolaketetan parte hartzen dozuen talde, elkarte eta lagun guztioi. Zuen lanari esker doguz jai hain herrikoi eta euskaldunak. Ezin ahaztu jaietan ezingo direnak egon: joandakoak, gaixoak, ezinduak, presoak, exiliatuak eta herritik urrun dagozen guztiak. Geugaz izango doguz gure bihotzetan.

Igaro dagiguzan jaiak askatasunean, berdintasunean eta euskeraz! Eraso sexistarik EZ! LGTBIfobiarik EZ!

Gora Arrankudiagako Andramari jaiak!

ARRANKUDIAGA-ZOLLO
Udala

Elkarrizketa

“Frontoia hezigune bat da niretzat, elkarbizitzarako lekua, eta gure nortasunaren adierazle bat”

JON ARANDIA ISUSI (1953, Arrankudiaga) Arrankudiagako Kamaraka pilota elkarteko zuzendaritzan aritu da urte luzez, baita epaile lanetan ere. Orain, baina, erretiroa hartu du, eta eginiko lana eskertzeko izendatu dute pregoilari.

Pregoilari izendatzea ez da zerbait ohikoa. Ezustean jaso duzu berria?

Bai, eta ikaratu ere bai! Lasai, eta bat-batean... Baina ingurukoekin komentatu eta gero baietz esan nuen, eta gustura nago!

Noiz eta nolatan hasi zinen esku-pilotan?

Eskolara joan nintzenean ez zegoen frontoirik. Orain dela 20 urte hurbildu nintzen esku-pilotara, nire semea entrenatzen eta jokatzen hasi zenean. Ffrontoian, batez ere, epaile lana izan da egin dudana. Zuzendaritzaren lana beste mota batekoa izan da: antolatzea, entrenatzaileak kontratatzea, kirol proiektua diseinatzea, gurasoekin harremanak izatea...

Zer da zuretzat frontoia? Eta esku-pilota?

Frontoia hezigune bat da, eta elkarbizitzarako lekua; non pilotaz jokatzen den eta ikasi; eta guzti hori euskaraz. Esku-pilota oso gurea den kirola da niretzat, gure nortasunaren adierazle bat.

Pentsatu duzu pregoian zer esan? Nolakoa izatea gustatuko litzaizuke?

Bai, pentsatuta daukat, baina

prestatuta ez. Hala ere, ez da luzea izango: ondo pasatzeko gonbita, dibertitzekoa eta pertsonak errespetatzeko daukagun beharra nabarmendu nahi ditut.

“Pilota harrobi sendoa dago Arrankudiagan, baina jendearen inplikaziorik gabe ez lirateke egongo ekimen hauek herrian”

Egun berezia izango da aurtengo txupinazoa zuretzat, ezbairik gabe. Nola gogoratu edo ospatuko duzu?

Bai, egun berezia izango da, duda barik. Seguraski urduri egongo naiz, kezka horrekin. Aurretik prestatuta edukiko dut, eta gero betikoa egingo dut.

Zein da zure ‘betiko plana’ ba?

Aurreko jaietan egin dudana: hasieran nire lagun Santirekin marmitakoa prestatu, eta gero familiarekin afaldu, eguerdietan buelta bat eman, txakolina dastatu, ekitaldiren bat ikusi...

Zein da festetatik gehien gustatzen zaizun ekintza?

Ekintza baino, eguna esango nuke: gaztetatik ‘Berakatz eguna’ izan da gehien gustatu zaidana, informala, mozorroen eguna, odoloste eguna....

Zerk egiten ditu berezi Arrankudiagako jaiak, zure ustez?

Berakatz egunak, lehen esan bezala, astelehen batean lan eguna izanda...

Eta hala eta guztiz ere sekulako arrakasta du! Jaien antolakuntza ere berezia da, batzorde bat dago, eta jendearen parte hartze handia.

Urteko hainbat unetan, ohikoak dira Arrankudiagan pilota partidak edo jaialdiak. Bada harrobi edo oinarri sendorik?

Zorionez, harrobi sendoa dago. Une honetan, batzuk nagusitu dira, eta pilota utzi dute.

Dena den, gaztetxoen multzoa handia da, bai neskena eta baita mutilena ere, eta urte batzuk daramatzate jadanik.

Dena ez da festa: urte asko eman dituzu pilota elkarteko zuzendaritzan. Beharrezkoa da belaunaldi berrien bultzada herri ekimenetan?

Guztiz beharrezkoa. Gure kasuan, 1996. urtean hasi ginen entrenatzen, eta gero kluba sortu zen. Pertsona batzuk lan handia egin zuten, eta geroago beste batzuk ere. Orain, beste batzuen txanda da. Jendearen inplikaziorik gabe, nahiz eta eduki dugun udalaren laguntza beharrezkoa izan, ez lirateke pilota bezalako ekimenak egongo herrian, gurasoak parte handi bat dira.

Pilota klubak zer ematen dio herriari?

Umeek eta gazteek kirola egiteko aukera. Horrez gain, klubak, jaietan parte hartu izan du, pilota jaialdiak antolatuta. ‘Andra Mari egunean’ bertoko pilotariekin; Eta ‘Berakatz egunean’ afizionatuekin. Neguko jaietan ere bai.

Elkartean 20 urte baino gehiago daramatzazu. Zer aldatu da urte guzti hauetan?

Gauza asko. Hasieran, entrenatzaileak ez ziren profesionalak. Boluntario moduan aritzen ziren, gaur egun pentsaezina da hori: Diputazioak behartuta jendea aseguratuta egon behar da lanean. Hori bai, geroz eta gauza gehiago eskatzen dira administraziotik. 10 urte daramatzat zuzendaritzan, baina lehenago idazkari eta elkartean ere ibili nintzen. Bestalde, 20 ume izan ditugu gutxi gorabehera. Betidanik egon da neskaren bat, batzutan bi edo hiru, baina orain bederatzi daude, talde garrantzitsua osatuz.

Erretiroa hartu berri duzu. Zer egingo duzu orain?

Garaiak asko aldatu dira. Urte batzuk eman ditut nik jada, eta nire aurretik beste batzuk ordu asko sartu dituzte. Orain, beste batzuen txanda da.

Egitaraua

Bost eguneko eskaintza zaparrada Arrankudiagan

BI TXANPETAN BEREIZIKO DITUZTE ARRANKUDIAGAKO JAIAK: ABUZTUAREN 14TIK 15ERA, ETA 19TIK 22RA. OROTARIKO ESKAINTZA PRESTATU DU UDALAK.

Arrankudiagako jaiek badute egitaraua. Abuztuaren 14 eta 15ean abiatuko dituzte festak, eta 19tik 22ra izango du segida. Andra Mari bezperan -abuztuak 14- arratsaldetik gauera luzatuko da egitaraua.Ohi gisa, arratsaldeko 17:00etatik aurrera kamiseta banaketa, kaljira, marmitako lehiaketa eta tortila txapelketa egingo dituzte Gizarte Etxearen inguruan. Egun horretan jaurtiko dute txupina, 20:15ean hain zuzen. Gauean, berriz, DJ Adrian arituko da musika jartzen.

Abuztuaren 15ean, aldiz, dianarekin esnatuko dute herria 10:00etan, eta meza nagusiaren ostean trikipoteoa egongo da. Arratsaldean, aldiz, herriko umeen pilota partidak izango dira nagusi, 19:00etatik aurrera frontoian. Iluntzeko antzerki emanaldiarekin bukatuko dute eguna, Trapu Zaharra konpainiaren eskutik, 20:30ean.

Bigarren txanpa ostiraletik astelehenera arte luzatuko da, hilaren 19tik 22ra. 'Gaurko eta atzoko gazte eguna' antolatuko dute abuztuaren 19an horretarako, meza, mahai joko, edadetuen bazkari, erromeria, tribial, elektrotxaranga eta pintxopoteарekin. Gainera, gaztetxean kontzertuak egingo dituzte, taldeak oraindik zehaztu gabe badaude ere. Abuztuaren 20an, larunbatean, umeen eguna egingo dute. Hala, kalejira, jolas parkea eta haurren bazkaria izango dira protagonistak eguneko lehen zatian, eta 16:30ean apar festak hartuko dio lekukoa ekimenari. Horrez gain, bolo tiradak eta Xaiborren ikuskizuna egongo dira, baita kanpamentuko proiekzioa ere.

Abuztuaren 21ean, berriz, txakolin dastaketa, euskal presoen aldeko elkarretaratzea eta Kofradia Eguneko bazkariak beteko dute plaza. Kanturako tartea ere gorde dute, Joxe Mendizabal abeslariaren eskutik. Bestalde, mus txapelketa eta dantzaldia ere prestatuko dituzte.

Abuztuaren 22an bukatuko dira Arrankudiagako jaiak, Berakatz egunarekin. Astelehenean iluntzetik aurrera gozatuko dute azken trakaz, pilota partida, kale animazio eta odoloste janarekin. Aurreratu dutenez, gainera, Los Zopilotes Txirriaus eta Beranduegi taldeen kontzertuak egongo dira 23:00etatik aurrera. 05:00etan, baina, 'Berakatz zopa' banatuko dute gautxorien artean.

08.14 IGANDEA

17:00 KAMISETA banaketa

18:00 KALEJIRA

18:00 XXXIII. MARMITAKO LEHIAKETA

20:00 XXIV. TORTILLA TXAPELKETA, herriko 0 eta 18 urte arteko gazteentzat

20:15 TXUPINAZOA

23:00 DJ ADRIAN

08.15 ASTELEHENA

10:00 DIANA

11:00 MEZA NAGUSIA

12:30 Herriko umeen PILOTA PARTIDAK

20:30 Antzerkia; "TRAPU ZAHARRA"

Arrankudiaga-Zolloko jaiak

08.19 OSTIRALA

12:00 MEZA NAGUSIA

12:45 MAHAI JOKOAK

14:30 JUBILATUEN BAZKARIA eta ERROMERIA
Gizarte Etxea

18:00 TRIBIALA
Gaztetxean

19:00 PINTXOPOTEA eta ELEKTROTXARANGA

14:30 KONTZERTUAK
Gaztetxean

08.20 LARUNBATA

11:30 HAURREN KALEJIRA
Garondotik Elexaldera

12:00 JOLAS PARKEA
Elexalde

14:30 Haurrentzako BAZKARIA
Gizarte Etxea

16:30 APAR FESTA
Garondo

17:30 BOLOAK, haurren tiradak

18:30 BOLOAK, J.I. Larrazabalen Omenezko VII. tirada

19:00 XAIBOR

21:30 KANPAMENTUKO PROIEKZIOA

22:30 PLACTON
Iberlanda taberna

08.21 IGANDEA

10:00 DIANA

11:00 MEZA NAGUSIA

12:00 TXAKOLIN

DASTATZEA eta

ERAKUSKETA

12:00 Euskal

Presoen aldeko

ELKARRETARATZEA
Plaza

14:00 Haurren KOFRADIA BAZKARIA

14:30 KOFRADIA BAZKARIA
Eliz ataria

16:0 Kantaldia; JOXE MENDIZABAL

20:00 Dantzaldia; PAN CON CHILE
Plaza

08.22 ASTELEHENA

19:00 PILOTA PARTIDAK

20:00 Kale animazioa KITTU MUSIKA

21:30 ODOLOSTE JANA
Herriko tabernak

23:00 Gaupasa; LOS ZOPILOTES TXIRRIAUS eta BERANDUEGI ERROMERIA

05:00 BERAKATZ ZOPA eta JAIEN AMAIERA

EKILORE
JANARI DENDA
BERTAKO PRODUKTUAK
ENKARGUAK EGITEKO AUKERA
Elexalde kalea 18
ARRANKUDIAGA
688 630 165

ZUTOIN
PODOLOGIA LAUDIO
OINEN ZAINTZA INTEGRALA
- Podologia pediatrikoa
- Azterketa biomekanikoa + 3D barne-zola
- Podologia onkologikoa
- Kirurgia

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
KARMEN KALEA 15, 1.solairua LAUDIO
94 672 52 57
laudiopodologia@gmail.com

Atxetako jaiak

Atxetako jaiak ospatuko dituzte irailean

IRAILAREN 17 ETA 18AN OSPATUKO DITUZTE ATXETAKO JAIAK, ETA HONEZKERO PREST DUTE EGITARAUA. BESTEAK BESTE ALMERIAKO EL LIMITE BANDA ARITUKO DA AUZOAN.

Irailaren 17an jaurtiko dute, bi urteko etenaren ostean, Atxetako jaietako lehenengo suziria. 12:00etan izango da txupinazoa, eta jarraian kalejira batek girotuko ditu auzoko kaleak. Ordu berean haurrentzako jolas parkea atonduko dute ere, tailer, puzgarri eta bestelako jolasekin. 12:30etan marmitako eta patata tortilla txapelketari emango diote hasiera. Epai-mahaiak 14:30etan iragarriko du lapiko irabazlea eta parte hartzaile guztiek batera bazkalduko dute jarraian.

Arratsaldean haurrentzako hainbat jarduera eskainiko dituzte, 16:00etatik aurrera: makillaje tailerra, ohe elastikoak, buruhandiak... 18.00etan DJ Pakok haurrentzako musika ikuskizuna egingo du, eta 19:00etan txokolatada herrikoiaren txanda izango da.

19:30etan Erdizka Lauetan taldeko lagunek dantza-plaza gidatuko dute. Festetako lehenengo eguna agurtzeko parrillada herrikoia egingo dute 21:30etan eta Almeriatik etorritako El Limite bandak kontzertua eskainiko du 22:00ak aldera.

Igandean, irailak 18, herri bazkaria egingo dute 14:30etan. Bazkalostea bingoarekin girotuko dute, harik eta Bocabeats Comediak arratsaldeari umore puntua jarri arte, 18:00etan. Jaiak XXXI. Igel toka txapelketarekin agurtuko dituzte.

09.17 LARUNBATA

12:00 TXUPINA eta KALEJIRA

12:00 HAURRENTZAKO TAILERRAK; puzgarriak eta ohe elastikoak

12:30 MARMITAKO eta TORTILLA TXAPELKETA

14:30 SARI BANAKETA eta bazkaria

16:00 HAURRENTZAKO TAILERRAK; puzgarriak eta ohe elastikoak

18:00 DJ PAKO, haurrentzako ikuskizuna

19:00 TXOKOLATADA

19:30 DANTZA-PLAZA, Erdizka lauetan

21:00 PARRILLADA

22:00 Kontzertua, EL LIMITE

09.18 IGANDEA

12:00 MEZA

14:30 HERRI BAZKARIA eta BINGOA

18:00 BOCABEATS COMEDIA

19:15 XXXI. IGEL TOKA TXAPELKETA

21:15 SARI BANAKETA

#Udariklik

Udako argazki lehiaketa 2022

Kategoriak eta sariak

- **AIARALDEA** Laudioko Fabrik tabernan 2 lagunentzat afaria.
- **MUNDUA** Ondarruko Arrigorri aterpetxean 2 lagunentzako gaua eta gosaria.

Irabazleak

Webguneko erabiltzaileek erabakiko dituzte boto bidez (Irailaren 26an jakinaraziko dira saridunak)

Bozketa fasea

IRAILAK 19-25

Lanak aurkezteko epea

IRAILAK 18

Parte hartzeko 3 modu

1. Sare sozialetan @aiaraldea #udariklik aipatuta
2. Whatsapp edo Telegramez argazkia, esaldia eta izen-abizenak bidalita
3. Emailez: erredakzioa@aiaraldea.eus helbidera bidalita argazkia, esaldia, egilearen izen-abizenak eta telefonoa.

* Nahi beste argazki bidali daitezke. Argazkiarekin batera esaldi bat bidali behar da (lekua eta kategoria ere zehaztu, ahal dela).

AIARALDEA F KOMUNIKABIDE FAKTORIA

www.aiaraldea.eus

Babesleak:

Laudio Fabrik

ARRIGORRI OSTATUA ONDARROA

Amurrioko jaiak

Abuztuaren 12tik 17ra



Babestutako edukia

Txerra Molinuevo

Amurrioko alkatea

Amurrioar agurgarria; hiru urte luzeren ondoren, Amurrioko jaiak ospatuko ditugu berriro. Aurten guztiok ospakizunerako ditugun gogoak eta ilusioak oso jai bereziak egingo ditu. Sei eguneko festari eta dibertimenduari hasiera emateko prest gaude Iguarrakoren etorrerarekin batera. Aurtengo jaiak inoiz baino gogo gehiagorekin espero ditugu. Kaleko jarduera osoa berreskuratuko dugu eta denok elkartuko gara berriro. Gainera, programazioa oso modu berezian landu da, kulturartekotasuna, inklusioa, berdintasuna eta elkartasuna uztartuz. Alderdi horiek guztiak funtsezkoak dira gure ingurunearen eraldaketa sozialarekin jarraitzeko. Jai-programa honetan parte hartzen duten talde zein pertsona guztiei biziki eskertu nahi diet eginiko lana, funtsezkoak dira programa aberatsa eta askotarikoa izan dadin, sei egunez adin eta jende guztiarentzako ekitaldiak antolatuz. Halaber, egun hauek gurekin ospatzerik ez dutenak gogoan izanik, jaietan modu aktiboan parte hartzera gonbidatzen zaituztet, betiere tolerantzian, errespetuan eta harmonian oinarrituta.

Ongi etorri jaiak,
ongi, etorri Iguarrako!
Ondo pasa guztiok!

AMURRIO
UDALA
AYUNTAMIENTO

Elkarrizketa

“Urduri, ilusioz eta oso eskertuta gaude pregoilari aritzeko aukera izateagatik”

IMANOL LLANO (Amurrio Trail) **PATRI ALDAMA** eta **JOKIN CARAMES** (Nagusilan) eta **JESUS ZURIMENDI** (Amurrioko Txirrindularitza Elkartea) izango dira, besteak beste, aurtengo pregoilariak. 2020tik 2022ra Urrezko Guk Saria jaso duten eragileek irakurriko dute mezua.

Pregoi hirukoitza izango da aurtengoa. Zer mezu zabalduko duzue?

Amurrio Trail: Gure aldetik, atzera begira jarriko gara, hastapenetara. Ez da denbora asko igaro, baina oso intentsoa izan da. Horrez gain, pandemiaren etapaz arituko gara, bizitzea eta sufritzea egokitu baitzitzaigun. Eta, nola ez, jendeak gozatzeko eta parte hartzeko mezua zabalduko dugu, inolako eraso eta antzekorik gabe.

Nagusilan: Jaietan gaudenez, batez ere, ahalik eta festa lasaienak, arazo gabeak eta onenak nahi ditugu. Bestalde, Nagusilanek urtean zehar egiten duen lana goraipatuko dugu, hori baita benetako beharra: zaintza. Jendea laguntzeko jendea behar dugu, eta laguntza eskatuko dugu. Gure pregoiak prosa lerroak izango ditu, eta gero bertso batzuk bukatzeko.

Amurrioko Txirrindularitza Elkartea: Gu ere oso eskertuta gaude pregoilari gisa jaietan aritzeko aukeragatik. Eta, nola ez, bidelagun ditugun laguntzaile guztiak aipatuko ditugu: babesleak, kolaboratzaileak, boluntarioak eta abar.

Zer suposatzen du pregoilari izendatzeak, edota Urrezko Guk saria jasotzeak, herriko eragile batentzat?

Amurrio Trail: Herriak, auzokideek eta lagunek egindako aitortza da. Herriko jendeak eginiko omenaldia, gainera... zer gehiago eskatu daiteke?

Nagusilan: Guk ez dugu apenas ezer egin, bada gu baino lan askoz gehiago egin duen jendea. Batzuk 20 urte baino gehiago daramatzate. Hala ere, nagusien kolektiboarentzat aitorpena da. Sekula ez genuke pentsatuko pregoilari izendatuko gintuztenik, eta asko eskertzen dugu.

Amurrioko Txirrindularitza Elkartea: Gure kasuan, ez dugu askorik gehitzeko esandakoari. Txirrindularitza elkartean ere, denetariko jendea dago: desagertu dena, badagoena... Espero dugu urte luzez aurrera jarraitzea.

Nola imajinatzen duzue txupinazo eguna?

Amurrio Trail: Urduritasun eta saltsa askorekin. Oso ekitaldi publikoa da, eta momentu oso berezia. Gainera, bi urte berandu dator, eta beraz, oso gogotsu egongo gara guztiok. Nerbioak nerbio,

ahalik eta gehien gozatzen saiatuko gara.

Nagusilan: Urduri, ziur, batez ere euskaraz eta jendaurrean hitz egiteagatik. Mikrofono asko egongo dira, gainera. Imajinatzea kosta egiten zaigu, nahiago dugu bizi. Gainera, irabazi asmorik gabeko elkartea ordezkatzeak ilusio asko egiten digu; eragile apolitikoa, akonfesionala eta boluntarioduna garelako, adindunek adindunentzat egina.

Amurrioko Txirrindularitza Elkartea Pregoi egunean pentsatzeaz gain, Ama Birjinaren eguneko (abuztuak 15) txirrindularitza lasterketan izango dugu guk burua.

Boluntariotza duzue motore hiru eragileek. Zein ekintza egingo duzue jaietan?

Amurrio Trail: Txosna solidarioaren ideia bota ziguten, eta horrekin arituko gara buru-belarri. Kontzertuak Mendikon daudenean edari eskaintza egingo dugu, eta bildutako diru guztia X Sindrome Hauskorraren Elkartearentzat izango da.

Nagusilan: Bakoitzaren kasua ezberdina da gure elkartean, beste saltsa batzuetan ere parte hartzen dugulako. Pertsona nagusien parte hartzeari begira oroitzapen polita izatea gustatuko litzaiguke. Nagusien esperientzia eredu izatea gustatuko litzaiguke, parte hartzeari begira. Abuztuaren 13an, adibidez, adinduentzat herri bazkaria antolatzen du Udalak, eta Nagusien Egoitzatik bertara joateko laguntza behar dutenentzat bertan izango gara zenbait boluntario.

Amurrioko Txirrindularitza Elkartea: Gu ere, antzera! Ahalik eta gehien laguntzen saiatuko gara, eta Txirrindularitza Sari Nagusia prestatzen ere bai. Hortik aurrera, parte hartu eta gozatzera.

“Herriak, auzokideek eta lagunek egindako aitortza da... zer gehiago eskatu daiteke?”

Elkarrizketa

“Jaietan gertatu ohi den leherketa eta kaosa irudikatu nahi izan ditut kartelean”

INHAR MINGUEZ (Amurrio, 1995) da Amurrioko jai-kartelaren egilea. Entropia izeneko printzipio fisikoan oinarritu da, herriko festetan gertatzen den kaos eta leherketa irudikatzeko.

Amurrioko Jaietako kartel lehiaketa irabazi duzu aurten, baina honakoa ez da lehiaketara aurkezten zaren lehenengo aldai, ezta?

Txikitatik, marraztea beti izan dut gustuko. Amurriokoa naiz ni eta jaiak modu berezian bizi izan ditut beti. Txikitan hainbatetan aurkeztu nintzen kartel lehiaketara, eta behin hura irabazi eta jaien programazioko kontraportadan argitaratu zuten nire lana. Gerora, pare bat aldiz aurkeztu izan naiz nagusien lehiaketara. Amurrion bakarrik ez, Urduña eta Laudioko jai-kartelen lehiaketetara ere aurkeztu ditut lanak. Aurten, koronabirusaren ondorioz etxean konfinatuta nengoela aprobetxatuta animatu nintzen lehiaketan parte hartzera. Denbora soberan nuen eta sorkuntza lanari ekin nion.

‘Entropia’ da zuk aurkeztutako lanaren izenburua. Zer adierazi nahi izan duzu zure proposamenean?

Ni ez naiz fisikan aditua, baina gainetik azalduta entropia kontzeptu fisiko bat da, zeinen arabera unibertsoan materiak kaos eta desordenarako joera duen. Gizakiok ere, materia guzti horren parte izanda hartara goaz. Oso kontzeptu interesgarria iruditzen zait, eta uste dut oso ondo adierazten duela jaietan gertatu ohi dena. Pandemiak markatutako azken urte hauetan hain zurrunak izan diren neurri murriztaile, kontrol mekanismo eta ordena guzti horren aurrean, uste dut jaietako garaia badela kaosera garamatzan egoera bat. Horregatik hautatu dut entropiaren analogia.

Nola islatu duzu hori kartelean?

Lehenengo begiratuan desordena eta mugimendua iradokitzen ditu kartelak, leherketa moduko bat. Jaietan gertatu ohi den festa giroaren eztanda hori irudikatzen du. Desordena guzti horretan jaietako elementu desberdinak txertatzen joan naiz. Amurrioko jaietako elementu ia denak daude irudikatuta bertan, baita Euskal Herriko jaietan ugariak diren bestelako elementu asko eta asko ere.

Joko baten modukoa da; ikusleak denbora bat beharko du elementu denak identifikatzeko, batek gauza bat ikusiko du, beste batek beste zerbait.

Txertatu duzu elementu pertsonalagorik?

Ez bereziki, Amurrioko jaietako unibertsoa osatzen duten elementu ia denak daude bertan. Niretzat kartelak irudikatzen duen kontzeptu orokor hori da jaietako nire gauzarik kuttunena; festek duten inprebisiblitatea: Edozein gauza gertatu daitekeenaren sentsazioa, arauak apurtu, normalean elkartzen ez zaren jendearekin hitz egitea...

Nolakoa izan da sorkuntza prozesua?

Hasieratik nuen buruan lau koloretara murriztu nahi nuela kolore gama, baita koadrante sinpleen gainean egin nahi nuela lan ere. Hortik aurrera ideia finkorik gabe joan naiz dena betetzen. Konfinatuta eman nuen garaian osatu nuen dena, ez zen bereziki nekeza izan lana, eta entretenituta egoteko aitzakia ematen zidan. Egia da ere, espero baino dedikazio gehiago eskatu didala.

Epaimahaiak oso positiboki baloratu du zure lana. Zu pozik zaude emaitzarekin?

Sortzaile moduan oso pozgarria da egindako lana balioan jartzea. Herritarrengandik jasotako mezuek ere asko poztu naute. Orotariko inpresioak jaso ditut, egia da nagusiagoa den jendeari gehiago kostatzen zaiola, baina ohitzea besterik ez dago. Uste dut oso positiboa dela gauza desberdinak egitea.

Egitaraua

08.06 LARUNBATA

18:00 SANTUAREN JAITSIERA Andra Mariaren elizara
San Roke baseliza

08.11 OSTEGUNA

18:00 Manifestazioa, BELDURRAK GUREKIN JAI, GOZATZERA GATOZ
Juan Urrutia plazatik

19:00 PINTXOPOTE MUSIKATUA Ugarte Otxotearekin, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
Parkea

21:00 Jai Herrikoien Aldeko TXUPINA
Parkea

21:30 PARRILLADA HERRIKOIA, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
Parkea

22:30 DJ 2 MINO, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
Gazte Karpa

08.12 OSTIRALA

11:30 AMURRIO HIRIBILDUA PILOTA TXAPELKETAKO finalak
Udal Pilotalekua

11:30 PAELLA TXAPELKETA Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
Parkea

13:00 KUADRILLEN AURKEZPENA
Juan Urrutia Plaza

16:00 TXAPELA JAURTIKETA Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
Parkea

13:00 Kale animazioa BETI JAI fanfarrearekin
Herrian zehar

17:00 HAURRENTZAKO JOLASAK, Kirikiñoren eskutik
Parkean

17:45 JAIETAKO PREGOIAREN IRAKURKETA, Nagusilanen, Amurrio Trail eta Txirrindularitza Elkartearen eskutik; eta JAI KUADRILLEN AURKEZPENA
Udaletxeko aretoa

19:00 TXUPINAZOA, IGUARRAKOAren jaitsiera
Juan Urrutia Plaza

20:00 KALE ANTZERKIA, Trocos Lucos konpainiaren eskutik
San Anton plaza

20:00 "Musika kalean" PERDIDO ENTRE ILUSIONES bakarlariaren kontzertua
Elexondo pasealekua

22:00 REMIX ORKESTRA
Juan Urrutia Plaza

22:00 Profesionalen PILOTA PARTIDAK
Udal pilotalekua

22:30 IBIL BEDI eta 4 BANCOS, EL POLLI ETA MALEN ATXA taldeen kontzertuak, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
Txosnagunea

01:45 DJ REIMY, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
Gazte Karpa

02:00 DJ MARKELIN
Juan Urrutia Plaza

Amurrioko jaiak

MAPFRE
AMURRIO

BIZITZA-ASEUGURUAK, KOMUNITATEAK ETA AUTONOMOENTZAKO ASEGURUAK...

· ISTRIPU- ETA BAJA-ASEGURUAK
· MEDIKU ASEGURUAK
· AURREZKI ASEGURUAK
· B.G.A.E. (Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak)
· BIZIARTEKO ERRENTAK
· ENPRESEN DIBISIOAK
· ETXE ASEGURUAK
· HILETA ASEGURUAK

Jose Madinabeitia 5, behea AMURRIO Araba / www.mapfre.com/oficinas/0114
Tel. 945 39 31 31 Fax. 945 89 35 54 casteca@mapfre.com

El Rinconcito
Larrinaga 1,
AMURRIO

INSTALACIONES
RAGA IBARRONDO
ITURGINTZA BEROKUNTZA GASA AIRE GIROTUA
Denda 945 30 37 35
Jesús 636 42 80 15
Juanmi 620 63 81 38
Susana 636 77 74 55
José Madinabeitia, 1
Amurrio
ragaibarrondo@gmail.com
www.ragaibarrondo.com

LOUMARA
GARBIKETAK
Garbiketa orokorrak, obra amaieren garbiketak, komunitateen, lokalen eta bulegoen garbiketak egiten ditugu.
limpiezas.loumara@gmail.com
620075132
Ondo pasa jaietan!

Electricidad Albizua, S.L.
Tel. 608 87 05 13
945 89 07 02
Aldaiturriaga poligonoa, E2 (AMURRIO)
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Aialur
Ingeniería de montes, topografía y medio ambiente
25 urte baino gehiago zuekin
Tel. 945 89 02 56 Fax. 945 89 23 24
> Obrazko topografia
> Lur-sailetako neurketak
> Mugarriztatze eta mugaketak
> Ingurune inpaktuen ebaluazioak
> Ingurune proiektuak
> Baso jasangarrientzako planak
> Proiektu eta aktibitate lizentziak nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenetan
> Pinudien tasazioa
> Balorazio eta tasazioak
Maskuribai Industrialdea, Pab. B-03/ B-10
AMURRIO (Araba) aialur@aialur.com

Ikasi euskara, bidelagun onenarekin
aek
euskara praktikoa
EUSKARA
IKASTEKO BIDELAGUN ONENA

Aiarako AEK
Laudio, Amurrio, Orozko, Okondo, Aiara, Artziniega eta Urduña
• Aurrez-aurrekoak: maila eta ordutegi guztiak
• Autoikaskuntza tutore eta mintza-saioekin
• Titulu ofizialak A1-A2-B1-B2-C1
Laudioko AEK · Zubiaur, 5 · 946 726 722 · 663 194 177 · laudio@aek.eus
Amurrioko AEK · Etxegoinbide, 8
945 892 334 · 663 076 240 · amurrio@aek.eus
Urduñako AEK · Kultur-etxea · 607 678 079
DIRULAGUNTZAK
EUSKO JAURLARITZA · ARABAKO ALDUNDIA · LAUDIO, AMURRIO, URDUÑA ETA AIARAKO UDALAK

Egitaraua

08.13 LARUNBATA

10:30 Kale animazioa BETI JAI fanfarrearekin
Herrian zehar

11:00 HAUR PARKEA: Puzgarriak, txirrista freskagarria...
Parkean

11:00 MAKILAREN ENTREGA herriko pertsona helduenari
Udaletxeko aretoa

11:00 Aldi bereko XAKE PARTIDAK, Amurrioko xake taldearen eskutik
Juan Urrutia plaza

11:30 MEZA NAGUSIA
Andra Mariaren Parrokia

12:00 BURUHANDIAK
Juan Urrutia plazatik

12:30 Adinekoentzako JANAURREKOA eta MUSIKA ANIMAZIOA
Juan Urrutia plaza

14:30 APAR FESTA
GUK eskultura

14:00 Atzoko gazteentzako ANAITASUN BAZKARIA
Udal pilotalekua

14:00 HAURRENTZAKO BAZKARIA
Parkea

16:00 DANTZALDIA Jamaika taldearekin
Frontoi kalea

16:00 Familientzako antzerkia, "SKRATX"
Parkea

16:00 IGUARRAKOA bisitatzeko aukera
Udaletxeko aretoa

16:00 ESCAPE ROOM, berdintasuna@amurrio.eus
Kultur Etxea

16:00 KALAKA egurrezko jolasak
Parkea

16:30 XVI. GOTZON LANDETA MUS TXAPELKETA, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
Parkea

19:00 Magia ikuskizuna, SUN MAGOA
Juan Urrutia Plaza

19:00 VI. JOSE NEGRETE FUTBOL TROFEOA, SD Gernika-Sestao River
Basarte futbol zelaia

19:30 SOS AIARALDEA manifestazioa
Juan Urrutia Plazatik

20:00 BURUHANDIAK
Juan Urrutia Plazatik

20:15 Kale ikuskizuna, "SARDINA FRESKUEEE!"
Juan Urrutia Plaza

20:30 BERBENA CAMP Jamaika taldearekin
San Anton plaza

22:00 Kontzertu handia BETTO SNAY raperoarekin
Mendiko Eskola

22:30 FEMME-FATALE AKA. BONI&JLT eta MIÑOI! Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
Txosnagunea

23:30 CELTAS CORTOS
Mendiko Eskola

01:30 DJ GOMI
Juan Urrutia Plaza

01:45 LOZA, KORTAZAR eta MRT eskualdeko raperoak, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
Parkean

Amurrioko jaiak

23:30 DANTZETAN JARRAI!, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
Gazte Karpa

08.14 IGANDEA

09:30 XI. MARMITAKO LEHIAKETA, Su-Gozotan gastronomia elkarteak antolatuta
Juan Urrutia Plaza

10:00 Baserriko produktuen AZOKA
Juan Urrutia Plaza

11:00 KALEJIRA Amurrioko Txistuzaleak taldearekin
Herrian zehar

11:00 HAUR PARKEA: Puzgarriak, txirrista freskagarria...
Parkean

12:30 KALE ANIMAZIOA Ander eta Lander bikotearekin
Herrian zehar

13:00 KUADRILLEN TRIKI-POTEOA
Herrian zehar

13:00 ZIZA DASTAKETA Arriola Mikologia Elkartearen eskutik
Juan Urrutia Plaza

13:00 Kaleko Musika Jaialdia, GREX MUSKA
Elexondo pasealekua

13:30 APAR FESTA
GUK eskultura

14:00 XI MARMITAKO LEHIAKETAREN sari banaketa
Juan Urrutia Plaza

15:00 KUADRILLEN BAZKARIA
Parkea

16:30 DJ KAKTUS
Parkea

18:00 KUADRILLEN JOLASAK
Parkea

19:00 Perkusio tailerra BATTURRE BATUKADAREKIN
Elexondo pasealekua

19:30 LORE ESKAINTZA
Andra Mariaren Parrokia

20:00 ODOLOSTE JANA
San Anton plaza

20:00 Kaleko Musika Jaialdia, MARIO ENZO txontxongiloarekin
San Anton plaza

21:00 KALEJIRA MUSIKATUA, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
Txosnagunetik

21:00 Kaleko Musika Jaialdia, BORJA CATANESI
Frontoi kalea

23:00 Kontzertu handia LA FURIArekin
Mendiko Eskola

23:00 CHILL MAFIA
Mendiko Eskola

01:00 DJ TRUE, TOX ETA KITTO ft. POTTORS DESTROYERS
Txosnagunea

02:00 DISKO SOUND 4
Juan Urrutia Plaza

Egitaraua

08.15 ASTELEHENA

10:00 KANPAI-IRAULKETA
Andra Maria Parrokia

10:00 Elite eta Sub 23 TXIRRINDULARITZA SARI NAGUSIA
Elexondo pasealekua

10:00 DIANAK
Herrian zehar

10:45 MARIAKA eta MARIGABON erraldoien kalejira elizara
Udaletxetik

11:00 MEZA NAGUSIA
Andra Maria Parrokia

12:30 BURUHANDI eta ERRALDOIEN kalejira
Herrian zehar

12:30 Agintari eta jaietako partaideei HARRERA
Udaletxeko aretoa

12:30 EUSKAL ERREPRESALIATUEN ALDEKO ELKARRETARATZEA
Juan Urrutia Plaza

12:30 HERRI KIROLAK, Aizkolariak eta harri jasotzea
San Anton plaza

18:00 GURE ESKU DAGO gunea eta SAHARAR HERRIAREN HAIMA, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
Parkea

19:30 EUSKAL DANTZEN ERAKUSTALDIA, Aiara Dantza Taldeak antolatuta
Juan Urrutia Plaza

20:30 Berbena CAMP GALEA ORKESTRArekin
Urrutia jauregiko landa

21:00 Kale antzerkia, "BIDEAREN AMAIERAN"
Urrutia jauregiko landa

23:00 NEOMAK folk kontzertua
Urrutia jauregiko landa

23:30 BABIORA IGOERA OXIGENORIK GABE ft. Dj Marauri, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
Parkea

08.16 ASTEARTEA

10:00 SANTUAREN IGOERA San Rokeko baselizara
Andra Maria Parrokia

10:30 GANADU ERAKUSKETA, Done Errokeren Azoka 2022
San Rokeko zelaian

11:30 MEZA NAGUSIA, Mariaka Abesbatzarekin
San Rokeko zelaian

12:30 AURRESKU ETA JOTEN LVI. TXAPELKETA, Aiara Dantza Taldeak antolatuta
San Rokeko zelaian

Amurrioko jaiak

20:00 Kale antzerkia, "PIENSA EN WILBUR"
Urrutia jauregiko landa

21:00 PURO RELAJO
Juan Urrutia Plaza

22:15 KARROZA DESFILEA
Elizako biribilgunetik

23:30 Erromeria TRIKIZIO taldearekin
Juan Urrutia Plaza

01:30 KARROZA LEHIAKETAREN sari banaketa
Juan Urrutia Plaza

02:00 DJ RUBA
Juan Urrutia Plaza

08.17 ASTEAZKENA

09:00 I. SUKALKI LEHIKAETA eta XXI. PATATA-TORTILA LEHIAKETA, Mendiko Lagunak Taldeak antolatuta
San Rokeko zelaian

11:30 MEZA NAGUSIA, Mariaka Abesbatzarekin
San Rokeko zelaian

12:30 Ardiei ilea era tradizionalean mozteko ERAKUSTALDIA
San Rokeko zelaian

14:30 ANAITASUN BAZKARIA
San Rokeko zelaian

16:00 Erromeria JUNDA JO taldearekin
San Rokeko zelaian

17:00 APAR FESTA
San Rokeko zelaian

20:00 DARDARA SOINU SISTEMA eta ZUTIK!, Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak antolatuta
Parkea

20:30 LOF OF LADIES, emakumeen borroka libreko ikuskizuna
San Anton Plaza

22:00 DANTZA-PLAZA, Patxi Perezekin
San Rokeko zelaian

00:00 2022ko HERRIKO JAIEN AGURRA, bengala banaketa eta bateria piroteknikoen jaurtitzea
Juan Urrutia Plaza

adi grafik
diseinua
eta askoz gehiago.
Diseinu grafikoa
Irudi korporatiboa
Errotulazioa
Merchandising
Maskuribai Ind, Z10 · AMURRIO · 945 89 08 46 | adi@adigrafik.com

TRANSPINSA
SOCIEDAD LIMITADA
MERKANTZIEN GARRAIOA
MEZULARIAK
PREMIAZKO ZERBITZUAK
transpinsa@transpinsa.es
Tel. 945 190 218
Kaltzadako pol. z/g
01470 AMURRIO

Amurrioko Jai Herrikoiak

“Parte hartzean oinarritutako jai herrikoiak dira jairik oparoenak”

JAI HERRIKOIEN ALDEKO BATZORDEAK PREST DU AURTENGO EGITARAUA. PARTE HARTZEA OINARRI EGITARAU OPAROA PRESTATU DUTE ABUZTUAREN 11TIK 18RA. DOZENAKA LAGUN ARITU DIRA ANTOLAKUNTZAN, ETA HORIETAKO BI DIRA BORJA GUILLEN ETA JOSU ARRIETA. PRESTATUTAKOA ALETU DIOTE AIARALDEA KOMUNIKABIDEARI.

Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak prest dauka egitaraua aurtengo Amurrioko Jaiei indarberriturik heltzeko. Hilabete luzetako lana izan da, eta batzordean parte hartzen duten eragile zein norbanakoak egindako lanaren fruituak jasotzeko irrikaz dira. Antolakuntzan aritu diren kideetako bi dira Borja Guillen eta Josu Arrieta, biek zortzi urte daramate egitarau herrikoiaren alde lanean.

“Gure betiko apustuan berretsi, eta koronabirusa iritsi aurretik bezalako egitarau anitz eta parte hartzailea osatzen ahalegindu gara”, nabarmendu dute Guillenek eta Arrietak. Kontsumora mugatutako jai eredutik harago, “jaiaren eremua zabaldu eta herritar ororen parte hartzea bermatuko duen eredua” dute ipar Jai Herrikoien Aldeko Batzordetik. Izan ere, nabarmendu dute gehienetan gaueko aisialdiarekin lotutako egitarauak gailentzen direla herrietako jaietan, eta inertzia horrekin apurtzeko borondatea du prestatutako eskaintza herrikoiak.

Egitarau oparoa

Iguarrakoaren jaitsiera baino egun bat lehenago abiatuko dituzte Amurrioko Jai Herrikoiak; abuztuaren 11n jaurtiko dute txupin herrikoia eta festa-giroa lehertuko da parkean atonduko duten txosnagunean. Abuztuaren 17ra bitarte kontzertuak, herri bazkariak, lehiaketa gastronomikoak, jolasak, kalejirak, haurrentzako ekintzak... orotariko ekintzak burutuko dituzte.

Parkeko zein Gazte Karpako oholtzara igoko diren musika taldeen artean Ibil Bedi, Zutik, 4 Bancos, El Polli, Matx, Dj Reimy, True, Tox eta Kitto ft. Pottors Destroyres, Dantzetan Jarrai edota eskualdeko rapeatzaileak. Aurten ere Babiora Igoera Oxigenorik Gabe garagardo kutxen eskalada saioa egingo dute ere. Iaz, pandemia betean, berreskuratu zuten Mendiko Lagunak taldeak urte luzez antolatutako ekintza arrakastatsua. Aurtengoan Dj Marauri gasteiztarrak girotuko du abuztuaren 15eko ekintza.

Aldarrikapenak ere izango du bere tokia. Otsemeak Neska* Gazte Taldeak, SOS Aiaraldea Plataformak edota Sarek mobilizazio bana deitu dute egitarauaren barruan.

Aurreratu dutenez “aurtengoak oso jai onak izango dira”.

Antolakuntzarik gabe jairik ez

Egitarau oparo hori, ordea, ez da hutsetik sortu. Herriko hamaika eragilek eta norbanakoren antolakuntza eta lan boluntarioak atera du aurrera. “Azken urtean, gainera, partaide gehiago bertaratu dira Jai Herrikoien Aldeko Batzordera, horrek aberasten du egitaraua festa-giroa aurrera ateratzeko lanean ari diren pertsona anitzak elkartzea”, azpimarratu du Borja Guillenek.

Pandemiak, ordea, aldatu egin ditu gizartearen lehentasunak oro har, eta Euskal Herrian festetarako giroa somatzen duten arren, jendea eredu herrikoietatik aldendu izana igarri dute ere: “Hiru urte igaro dira txosnarik eta jai herrikoirik gabe, eta ezinbestekoa da jendea berriro aktibatzea. Parte hartzean oinarritutako jaiak dira jairik aberatsenak. Guk herria eraikitzea dugu helburu”. azaldu du Josu Arrietak.

Amurrioko jaiak

BAIMENDUN INSTALATZAILEA
Iturgintza - Berogailua - Gasa - Aire girotua
CASTRO
David Castro
Zoru erradiatzaileen eta Aerotermiaren instalatzailea · IG-B gas instalatzailea
Instalazio termikoen kokatzea eta mantenua · Iturgintza instalatzailea
Elexondo 24, Amurrio (Araba) 676 02 33 93 · 685 26 69 31 · 669 15 41 52
www.fontaneriacastro.com kaxyus@hotmail.com

arrate
gestoria aholkularitza aseguruak
Iturralde kalea 2, AMURRIO
945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com
20 urte
baino gehiagoko esperientzia
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

FISIOTERAPEUTAK
Estibaliz Robredo Ruiz de Azua
kol. zenbakia/1233
Esther García Galindez
kol. zenbakia/1791
ALDEZ AURRETIKO HITZORDUA
945 06 68 60 · 629 93 42 91
Armurubenta 5, behea
AMURRIO
myos
terapia integrala
· Fisioterapia eta Osteopatia
· Pelbis-zoruaren errehabilitazioa
· Gimnasia abdominal hipopresiboa eta Stretching-a

ALQVIMIA
Zure gorputza errespetatzen dugu tratamendu ez-inbaditzaileekin, BIO eta ECO kosmetikarekin
Gorputz- eta aurpegi-tratamenduak
Diatermia
Manikura Pedikura
Diodo laserra
Tel.: 605 747 229 Iturralde Kalea 7 - Amurrio
KOLOORE
Centro de Estética

ZUTOIN
PODOLOGIA LAUDIO
OINEN ZAINTZA INTEGRALA
Podologia pediatrikoa
Azterketa biomekanikoa + 3D barne-zola
Podologia onkologikoa
Kirurgia
ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
KARMEN KALEA 15, 1.solairua LAUDIO
94 672 52 57
laudiopodologia@gmail.com

TXOTIS
AZUL - ARRIBA
Jaietan egin gurekin topa!

BIDERDI
Askotariko garagardoak
Pintxoak
Eramateko tortillak
Jose Madinabeitia 8, Amurrio
663 53 19 67

Mugimendu Feminista

Eraso matxisten aurka, ekimen zaparrada Amurrion

AMURRIOKO MUGIMENDU FEMINISTAK JAI GIROKO ERASO ETA JARRERA MATXISTAK SALATZEKO EKIMEN ANITZAK JARRIKO DITU MARTXAN ABUZTUAREN 11TIK 17RA. BRIGADA MOREAK, 24 ORDUKO SALAKETA ETA ARRETA TELEFONOA ETA JAIEN HASIERAKO MOBILIZAZIOA DIRA BERRIKUNTZETAKO BATZUK.

Otsemeak taldeak sustatuta, elkartasun feminista andana saretu dute Amurrion azken hilabeteetan. “Eraso mota guztiei erantzungo diegu sozialki”, adierazi du Maddi Isasi Azkarraga kideak. Beste zenbait neska* gazterekin batera aritu da azken hilabeteetan planteamendua gorpuzten. Aurreko urteekin alderatuta, “erantzuna modu zabalagoan” emango dute bere iritziz, eta horretarako bestelako jai eragileak zein Udala inplikatu dituzte prozesuan.

Herriko jaiak hasi aurretik piztuko dute alarma morea herrian, manifestazio bidez. “Jai herrikoien programa mobilizazioarekin hasiko da, 18:00etan. Garrantzia eman nahi diogu herriko eragile desberdinen arteko deiari, nahiz eta neska* gazteak izan subjektu nagusi, herri akordio gisa adierazi nahi dugu ez ditugula erasoak onartuko”, erantsi du. Era berean, duela zenbait hilabete Otsemeakek sortutako Entzun gaitzatela tresnaren bidez jasotako salaketak ere ekarriko dituzte erdigunera. Abuztuaren 12an, berriz, txupinazoaren aurretik agerraldia egingo dute jai eragileek, “jai kuadrillen aurkezpenaren barruan, eraso eta jarrera matxistak salatzeko”. Horrez gain, indarkeria matxistari erantzuteko protokoloa indarrean jarriko dute berriro: “Esaterako, Amurrio Harrokoekin bilera egin dugu, eta protokoloaren parte izango dira, ikuspegi hori beste urteetan baino landuago eramateko asmoa daukagu”.

Protokoloaren sozializazio bitartekoak ere ugarituko dituzte, azpimarratu dutenez. “Hilabete pare bat daramagu Otsemeaken eta beste eragile batzuekin protokoloari buelta bat ematen, aurreko urteetako protokoloan oinarrituta, eta dauden beharrak, indarrak eta gogoak birbaloratuta”. Gainera, herriko kolektibo eta norbanakoak ez ezik, Udalaren inplikazioa ere lortu dute, hein batean.

Salaketa eta arreta telefonoa

Protokoloa zehaztetik harago, erasoak jasaten dituztenen arreta eta babes sarea handitu dute aurten. Horren harira, 24 ordu martxan egongo den telefonoaz gain, udaleko Gizarte Zerbitzuekin koordinatzeko eta arreta integrala eskaintzeko apustua jarri du mahai gainean Mugimendu Feministak, “laguntza integrala emateko”. Ildo beretik, erasorik gertatzekotan, tokiko erakundea ere Mugimendu Feministaren deialdira batzeko eskaera egin diote udal gobernuari. Prebentzioari eta kontzientziazioari begira, mezu desberdinekin euskarriak kaleratuko dituzte, “ez bakarrik pedagogia egiteko, baizik eta eraso sinbolikoagoak direnak -espazioaren erabilera eta abar- tresna desberdinen bidez salatzeko”. Esaterako, kontzertuen hasieran espazioak modu parekidean banatzeko edo “Nor dago lehen lerroan?” ohartarazteko iragarki laburrak jarriko dituzte bozgorailuetan. Hala, erasorik jasatekotan zer egin jakiteko eskuorriak ere egongo dira barretan. Aurtengo beste berrikuntza bat ‘brigada moreak’ izango dira. “Protokoloaren ardura duten pertsona konkretu horiez gain, beste pertsona batzuk egongo dira jai guneetan bueltaka, erasoren bati aurre egiteko aliatuak identifikatzeko”, zehaztu du Isasi Azkarragak. Guzti hori, auzolanean eta elkarlanean egingo dute, autodefentsa feminista indartze aldera.

Amurrioko jaiak

mendexa
ABENTURA PARK
ABENTURA PARKEA ETA TIROLINAK
Guztion neurriko zirkuituak
GOZATU NATURAZ,
LAGUN ARTEAN EDO FAMILIAN!

Tel. 688 85 62 83
info@mendexapark.com
www.mendexapark.com

LARRABE EGURRAK
Pago eta haritz egur salmenta
Mendiak sastrakaz garbitzea · Baso-pistak garbitzea
Itxituretarako hesolak kokatzea
679 96 14 21 AMURRIO

Alanbike
CAFÉ-BAR
Dionisio Aldama · T 945 89 31 45 · Amurrio

KOPAS
IDEIAK GAUZATZEN DITUGU
Gora Amurrioko jaiak

Aialako Industrialdea, 8
01479 Murga - Aiara
fabrica@kopas.es
Tfno. 945.39.94.05
www.kopas.es
Alda. Urkijo, 88 -2º
48013 Bilbao
kopas@kopas.es
Tfno. 94.442.22.24

Abiaga
JATETXEA
Eguneko menua, ezkontzak, jaunartzeak,
ospakizunak, taldeentzako menu bereziak...

Abiaga kaldea 7, AMURRIO 945 39 36 18 · 652 703 551
info@abiagajatetxea.com · www.abiagajatetxea.com ·

Izan AMURRIO
amurrioko merkatarien elkartea
Herrian bizi, herrian erosi
ZERBITZUAK
BEZEROA
ONLINE DENDA
OSTALARITZA
MERKATARITZA
www.izanamurrio.com

Karrozak

Amurrioko Kuadrillak, lanaren emaitza erakusteko irrikaz

LAN ETA LAN ARITU DIRA AZKEN ASTEETAN AMURRIOKO JAI KUADRILLETAKO KIDEAK, KARROZA LEHIAKETARAKO GURDIA PRESTATZEN. ABUZTUAREN 16AN, OHIKO KARROZA DESFILEAN AURKEZTUKO DUTE EGINDAKO LANAREN FRUITUA.

Amurrioko jaiak

Baranbioko jaiak

09.07 ASTEAZKENA

17:00 BRISKA txapelketa

19:00 TXUPINAZOA eta kanpai-jotzea

19:30 ODOLOSTE jana

20:00 Kontzertua; SABIN GUARESTI

09.08 OSTEGUNA

12:00 MEZA NAGUSIA
Garrastatxu

17:00 IGEL-TOKA txapelketa
Garrastatxu

09.09 OSTIRALA

12:00 MEZA NAGUSIA
Garrastatxu

19:00 TORTILLA TXAPELKETA
Garrastatxu

20:00 Kontzertua; GANORABAKO
Garrastatxu

09.08 OSTEGUNA

09:30 TXIRRINDULARI LASTERKETA

11:30 PAELLA TXAPELKETA

12:00 KALEJIRA txistulariekin

13:00 TXIRRINDULARI LASTERKETAren amaiera
Garrastatxu

14:45 PAELLA TXAPELKETAko sari banaketa

16:30 MUS TXAPELKETA

16:30 PUZGARRIAK

18:00 KETTLEBELL erakusketa, BORJA OTAOLA KRÖBEL Munduko txapeldunarekin

21:00 PATXI PEREZ

22:00 PARRILLADA

23:00 Kontzertua; GARILAK 26

RESTAURANTE OKELVRI

Eguneko menua · Asteburuetako menuak
Taldeentzako menuak

945 89 20 50 ~ Berganza auzoa 2, Baranbio (AMURRIO) ~ @restauranteokelurijatetxea

Egitaraua

Larrabeko jaiak

08.24 ASTEAZKENA

10:00 TXUPINAZOA

11:30 MEZA

12:00 PUZGARRIAK

12:00 TORTILLA TXAPELKETA

19:00 JOLASAK

19:00 TXOKOLATE JANA

20:00 IGEL-TOKA TXAPELKETA

21:30 Erromeria, JUMAS BAND taldearekin

Aloriako jaiak

09.29 ASTELEHENA

07:30 SUZIRI jaurtiketa

12:30 MEZA NAGUSIA

13:15 DANTZAK, Erauntsi taldearekin

15:00 HERRI BAZKARIA

16:30 ALBORADA

17:00 MUS TXAPELKETA

18:30 JOLASAK eta TXOKOLATE JANA

23:00 GAUARGI eta DJ KARRIFEST

03:00 GALTZONTZILO eta KULERO lasterketa

09.30 ASTEARTEA

07:30 HERRI-ESNATZEA Suziri eta kanpaiekin

13:00 MEZA

13:30 ARGAZKI ERAKUSKETA

15:00 HERRI BAZKARIA

18:00 PUZGARRIAK

21:30 PARRILLADA
Etekinak ADELA elkartearentzat

23:30 NONBAIT erromeria eta DJ VARRO

HOTEL ORDUÑA PLAZA
**** Balneario

ZURE EZKONTZA GUREKIN

XVIII.mendeko eraikuntza klasikoa

Aretoaren edukiera: 250 pertsona

Gonbidatuentzako ostatua

Ezkontza zibiletarako barruko patioa eta koktela

Ezkontzetako gure dossierra: www.hotelordunaplaza.com

Foru plaza, URDUÑA · Tel. 945 56 90 38 · info@hotelordunaplaza.com · www.hotelordunaplaza.com

ERREMINTA DIGITAL GUZTIAK DITUGU ZURETZAT.

Eta ondoan norbait bazenu horietaz baliatzeko?

Meet, Bizum, identifikazio biometrikoa... Dozenaka tresna digital ditugu zuretzat. Baina horiek erabiltzea da kontua, ez zaizu iruditzen?

Horregatik, behar duzun guztietan, LABORAL Kutxan **gestore bat izango duzu ondoan, horiek azaldu eta erabiltzen laguntzeko.**

LABORAL kutxa

Bada beste modu bat

Laudioko jaiak

Abuztuaren 15etik 28ra

Babestutako edukia

Ander Añibarro Maestre

Laudioko alkatea

2022 hau urte berezia da eta sanroke hauek, zalantzarik gabe, oso hunkigarriak izango dira. Horregatik, jai-egitarauko ekitaldietan gogo biziz eta alaitasunez parte hartzera gonbidatzen eta animatzen ditut herritarrak, baita bisitatzen gaituztenekin anfitrioi gisa aritzera ere, oroitzapenik onena eraman dezaten. Jai giroko mezu hau aprobetxatuz, ongi etorria eman nahi diet egun hauetan Laudiora hurbilduko diren guztiei ere, gure jaiez goza dezaten eta gure herriaren izaeran, alaitasunean eta errespetuan murgil daitezen. Baina ez dugu ahaztu behar gure jaiek topaketarako, errespeturako eta tolerantziarako, elkarbizitza osasungarrian gozatzeko eta, batez ere, BAI BAKARRIK DELA BAI jakiteko lekua izan behar dutela. Laudio beldurrik gabe goza daitekeen eta gozatu behar den herria da, eta sexu-, arraza- eta pentsamendu-aniztasuna errespetatzen da, inolako diskriminaziorik gabe. Hori da herri gisa hazten jarraitzeko modu bakarra. Herritar guztiok egiten dugu Laudio. Denok egiten ditugu sanrokeak.

Zorionak Laudio!
Gora sanrokeak!

LAUDIO
UDALA
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO

Elkarrizketa

“Herriak izan behar du jaietan protagonista, erakunde eta pertsona zehatzen gainetik”

JABI ARTETAk (Laudio, 1959) 1990. hamarkadatik darama jaien antolakuntzan murgilduta, Udaleko teknikari moduan. Aurten hartu du erretiroa, eta bera hautatu dute 15eko txupina pizteko.

Erretiroa hartu berri duzu, Laudioko Jaiak hasi baino hilabete batzuk lehenago. Ondo moldatu zara bizimodu berrira?

Urtarrilean hasi ohi gara San Roke jaien antolakuntzarekin. Gauzak hala, aurtengo jaietan lanean eman ditut azken hilabeteak, Udalak antolatzen dituen ekintzak prestatzen. Bi urte lehenago jubilatzeko aukera izan dut, eta ez dut aukera galtzen utzi. Lekukoa utzi behar zaie belaunaldi berriei!

Aurtengo jaiak bereziak izango dira zuretzat, txupina piztea egokituko zaizulako. Nola jaso zenuen proposamena?

Proposatu zidatenean uko egin nion. Ez zait protagonismoa gustatzen. Itzalpean egon naiz beti, Laudioko jaietako argazki gutxitan ikusiko nauzu, festen antolakuntzan 33 urte eman ditudan arren. Txupinazoan ikusten nau jendeak, txupina jartzeaz arduratzen naizelako.

Eskerrak eman nizkien nitaz gogoratzeagatik, ohore bat delako. Gainera, jai kuadrillak eta eragileak dira txupineroa hautatzeaz arduratzen direnak. Gauzak hala, pozgarria da zure lana aitortzen dutela ikustea.

Beste pertsona bat bilatzea eskatu nien, baina hurrengo egunean berriro luzatu zidaten proposamena eta udal-gobernua ere batu zen ‘presioa’ egitera. Gauzak hala, baiezkoa eman nuen azkenean.

Aurten orduan, txupinaz jarri eta pizteaz arduratuko zara?

Ez, txupina beste norbaitek jarriko didala imajinatzen dut, nik piztu dezadan (barreak).

Jaien itzalpean egon zarela diozu.

Bai, beti pentsatu dut jaietako protagonismoa ez duela pertsona edo erakunde batek izan behar, herriak, elkarteek eta kuadrillek baizik. Herria izan behar da jaiak antolatzen dituena, eta Udala inor antolatzen ez dituen jarduerak sustatzera mugatu behar da, Atzoko gazteen bazkaria edota kontzertu zehatz batzuk kasu.

Gauzak hala, taldeen beharrak asetzea izan da nire egiteko nagusia, azpiegitura aldetik batez ere. Udaltzaingoarekin edota obra eta zerbitzuen brigadarekin koordinatzea... Kontuan hartu behar dugu jaiak ez dituela Kultura, kirol eta jaien arloak antolatzen, Udal osoak baizik. Gauzak hala, hainbat sailen arteko elkarlana eskatzen dute festek.

Nolakoa da jaien antolakuntza prozesua?

Ni teknikaria naiz. Politikariak arduratzen dira erabakiak hartzeaz. Udal-gobernuak ezartzen ditu irizpideak: zer kontzertu mota lotu, zer emanaldi egin... Horrez gain, diru-laguntzak ere kudeatzen ditugu, jaietan ekintzak antolatzen dituzten eragileak laguntzeko. Horrela abiatzen

“Egia da gaur egungo gazteriari kostatzen zaiola martxa hartzea, baina egia da baita ere orain tramite gehiago eskatzen direla, lehen ez zeudenak”

gara. Behin hori eginda, egitarau zirriborro bat osatzeari ekiten diogu, eta uztailaren amaierara arte egoten gara azken orduko moldaketekin.

Jende gehienak ez du prozesu hauen berri, baina ekintzak antolatzen dituzten taldeek ondo ezagutzen dute bidea. Sanrokeetako programak ekintza andana dauka, eta tentu handiz aritu behar gara denak ondo koordinatu ahal izateko.

33 urte igaro dituzu jaien antolakuntzan. Asko aldatu dira sanrokeak hiru hamarkada hauetan?

Diru publiko gehiago bideratzen da orain jaien antolakuntzara, diru-laguntza gehiago daude, parte hartze handiagoa... Laudio erreferentea da Aiaraldean, eta hemengo jaiek badute garrantzia.

Parte hartzea handitu dela esango zenuke?

Uste dut baietz. Egia da gaur egungo gazteriari kostatzen zaiola martxa hartzea, baina egia da baita ere orain tramite gehiago eskatzen direla, lehen ez zeudenak. Egia da Bilboko jaiek eragina izan dezaketela, baina esango nuke Laudioko jendeak, oro har, jaietan aktiboki parte hartzen duela, geroz eta gehiago.

Lehen bazegoen, adibidez, Atzoko gazteen eguneko bazkaria antolatzen zuen kuadrilla bat. Baina bazkari horren antolaketa konplexua da, urte batzuetan ia 600 partaide izatera iritsi delako. Duela zenbait urteko gazteen inplikazioa eta gaur egungoena ez da berdina. Ez dut esan nahi oraingo inplikazioa hobea edo txarragoa denik, ezberdina da. Hala ere, 1990. urteko egitaraua eta aurtengoa alderatuz gero ezberdintasun oso nabarmenak ikusi daitezke, ekintza kopuruari eta inbertitzen den diru kopuruari begira batez ere. Aurten La Oreja de Van Gogh eta La Pegatina etorriko dira, une honetan gailurrean dauden bi talde. Lehen ez zen posible horrelakorik izatea, berbena garrantzitsuak genituen arren, duela urte asko.

Diru-laguntza gehiago ere ematen dira, kuadrillei edota txosnaguneari, besteak beste. Bi eragile horiek sekulako lana egiten dute jaietan ekintzak antolatzeko, eta Txosna Batzordeak, gainera, bere burua finantzatu egiten du. Oso ondo antolatuta daude, jende askoren inplikazioarekin. Oso kontuan hartzeko modukoa da hori.

Lehen oso ohikoa zen kuadrillek lokalak izatea, eta barne bizitza asko egitea toki horietan. Egia da lehen kuadrillen parte hartze askoz handiagoa zegoela kaleetan. Orain ere badago, egun zehatzen batean... baina ezin dituzu garaiak alderatu. Lehen jendeak ez zuen orain dagoen eskaintza guztia, eta kaleko bizitza gehiago zegoen... Nik beti esaten dut garai hauek ez direla hobeak edo txarragoak, ezberdinak baizik.

Elkarrizketa osoa Aiaraldea.eus atarian ikusgai.

Elkarrizketa

“Ez genuen omenaldirik espero, beti atera ditugu erraldoiak ondo pasatzeko”

SEBASTIAN MARTIN MANZANO ‘TXANIN’ eta **JOSE IGNACIO GOIKOETXEA ‘TXETXU’** (Luiaondo, 2001) aurtengo pregoilariak izango dira San Roke Jaietan. Eurentzat ospakizun bereziak izango dira, baina ez soilik horregatik, izan ere, lehenengo aldiz berrogei urtetan ez dituzte Terencio eta Tomasa erraldoiak eramango.

Zergatik hautatu zaituztete aurten pregoilari gisa?

Txanin: Berrogei urte baino gehiagoz atera ditugu Terencio eta Tomasa erraldoiak Laudioko Jaietan eta aurten utzi egingo dugu. Jendeak, antza, hori estimatu du.

Txetxu: Bai, finean, gure ibilbidea aitortu dute.

Noiz hasi zineten erraldoiak eramaten?

Txanin: Ni kuadrillarekin hasi nintzen, ‘Los diablos negros’-eko kidea nintzen eta. Erraldoi txikiekin egin nuen hasieran, eta handiak ateratzen zituenak utzi zuenean, nik ekin nion Tomasa eramateari. 74. edo 75. urtean izan zen. Kuadrilla desagertu zenean, guk biok jarraitu genuen.

Txetxu: Zehazki, gu biok geratu ginen 2006an. Ordura arte beste pertsona batekin ere banatzen nuen Terencio eramateko ardura.

Txanin: Asko lagundu gaituzte ere kuadrillako bikoteek, gehienbat, umeekin.

Txetxu: Bai, erraldoiak guk kargatu ditugu, baina kuadrillak lagundu digu haurrak kontrolatzen, erdian ez jartzeko eta istripuak ekiditeko. Zazpi bikote ginen.

Erraldoiak ateratzen uztea erabaki zenutenean espero zenuten jendeak modu batean edo bestean erantzutea?

Txanin: Ez, inondik inora. Guk beti egin dugu ondo pasatzearren, ez dugu inoiz pentsatu beste gauza batean.

Txetxu: Ez genuen espero ezta omenaldia ere, baina ongi etorria izan dadin. Are gehiago, nik hasieran esan nuen agian aurten ez nuela Laudioko Jaietan parte hartuko, agian erraldoiak ikusiko nituelako eta negar egiten hasiko nintzelako. Etxean geratzea ere pentsatu nuen, baina omenaldiak ilusioa eragin digu.

“Mundiala da Terencio eta Tomasa soinean eramatea”

Erraldoiak hainbat urtez kargatzeko, nondik atera duzue motibazioa?

Txanin: Uste dut ume arima dugula. Ni betidanik egon naiz irrikan ordua heltzeko eta erraldoiak ateratzeko, eta euria egiten bazuen egun horretan eta ezin bagenuen egin, disgustua hartzen nuen. Jendeak nola pasatzen zuen ikusteak betetzen ninduen.

Txetxu: Eta hori ordutegia txarra dela. Arratsaldeko bostetan, bero handiarekin, hor sartuta eta bazkaldu berri... Batzuetan bazkaldu gabe edo erdi bazkalduta ere. Izugarria zen. Dena den, egia da oso pozik egiten genuela. Zailagoa izan da uztea. Dena den, berak belauna txarto dauka, nik ebakuntzak izan ditut eskuetan, bizkarra...

Txanin: Ilusioagatik izango balitz, jarraituko genukeen. Dudarik gabe. Gehiago esango dut. Aurten erraldoiek askoz gutxiago pisatuko dute. Laudioko Udalak konponketak eta hobekuntzak egingo dizkie eta ia 70 eta 40 kilo izatetik 35 eta 20 kilo pisatzera igaroko dira. Agian pentsatu beharko dugu itzultzea (barreak).

Txetxu: Bai, bereziki nik, Terenciok ia 70 kiloko pisua izan du nik eraman dudanean, haize kolpe batek botatzeko arriskua zekarren zuen, urte luzez pisu gehiena goiko aldean egon baita.

Ordezkoak dituzue jadanik, zein da haientzat duzuen mezua?

Txanin: Gozatu dezaten. Egia da beroa pasako dutela, baina ziur irrikan egongo direla ateratzeko.

Txetxu: Hori da, ilusioz hartuz gero, ez dute inolako arazorik izango eta guri bezala gertatuko zaie, ez dira konturatuko denbora pasatzen dela eta uzteko beharra agertzen denean, pena izagarria sentituko dute. Mundiala da Terencio eta Tomasa eramatea.

Egitaraua

08.14 IGANDEA

19:00 PREGORIAREN irakurketa, Arloteek eta San Roke Musika Bandak girotuta
Herriko Plaza

08.15 ASTELEHENA

08:30 Aire zabaleko XXIV. PINTURA LEHIAKETA
Herrian zehar

10:00 HERRI GOSARIA Baldarrak kuadrillak antolatuta
Alberto Acero plaza

10:00 Lagunarte historikoen elkarretaratzea eta KALEJIRA
Zubiaur kalea

11:30 Jai kuadrillen KALEJIRA
Alberto Acero Plaza

12:00 TXUPINAZOA
Herriko Plaza

12:30 RUPERTO URKIJORI OMENALDIA Arloteen eskutik
Lamuza Plaza

13:00 DJ TESO
Alberto Acero Plaza

13:00 Txosnen irekitzea eta URREZKO KATXIAren banaketa
Txosnagunea

13:30 URRATS ERROMERIA
Txosnagunea

14:00 DISKOFESTA, Jai Kuadrilla historikoekin
Zubiko Kurajo

16:00 HOTEL RUIDO, Jai Kuadrilla historikoekin
Zubiko Kurajo

17:00 SKI-TAULA txapelketa, Azkenak kuadrillak antolatuta
Zubiaur kalea

17:00 DJ RUBA
Zubiko malekoian

18:00 HERRI KIROL txapelketa, Arrizkuzubi taldeak antolatuta
Aldai Plaza

18:30 Sari banaketa XXIV. PINTURA LEHIAKETA
Herriko Plaza

19:00 Kale animazioa BETI JAI
Herrian zehar

19:00 "TARTANA" antzezlana
Lamuza Parkea

21:00 Kontzertua, MOCEDADES
Herriko Plaza

22:00 AKERBELTZ ERROMERIA
Txosnagunea

22:30 SUZKO ZEZENA
Herriko Plaza

08.16 ASTARTEA

08:00 ALBORADA Arloteen eskutik
Herrian zehar

bonaire
disco bar
Zure disko-taberna!
Zumalakarregi etorbidea,
LAUDIO // 946 72 58 41
Jarrai gaitzazu! @bonaire.laudio

SURYA
Masaje terapeutikoak
Masaje lasaigarriak
Aurpegi-tratamenduak
Gorputz-tratamenduak
Estetika-tratamenduak
Etxez etxeko makillajea
Jai zoriontsuak!
Zumalakarregi 28, LAUDIO · 944 030 362
688 887 950 @SuryaLlodio

Laudioko jaiak

09:00 KALEJIRA, Lankaietako Lagunak
Herrian zehar

09:00 KALEJIRA, Ekin Joleak
Herrian zehar

11:00 DIANA, Laudioko gaiteroekin
Herrian zehar

11:00 Hasiberrientzako ENTZIERROA
Lamuza Plaza

11:00 San Rokeren omenezko MEZA NAGUSIA
Done Petri eliza

11:00 FAMILIA GUNEA
Txosnagunea

12:00 KALEJIRA KUBATARRA Baisalak antolatuta
Alberto Acero Plaza

12:30 ENTZIERROA eta BIGANTXAK, 16 urtetik gorakoentzat
Lamuza Plaza

12:45 SAN ROKE MUSIKA BANDA
Aldai plaza

13:00 DANTZA EMANALDIA Baisalak antolatuta
Alberto Acero plaza

14:00 Jai kuadrilla historikoen BAZKARIA
Elizako arkupean

16:00 Jai kuadrilla historikoen DISKOFESTA
Elizako arkupean

17:00 ERRALDOI eta BURUHANDIEN kalejira
Herriko Plaza

18:00 AURRESKU, FANDANGO ETA ARIN-ARIN TXAPELKETAK Itxarkundia Dantza Taldeak antolatuta
Herriko Plaza

19:00 "KOBR3" antzezlana
Lamuza Parkea

20:00 Kalejira eta barbakoa ROCKALEAN taldearekin, Zoroak eta Xirika kuadrillek antolatuta
San Roke baselizatik

20:30 AMAK taldearen musika emanaldia
Alberto Acero plaza

20:30 Haurrentzako DISKODANTZA
Lamuza Parkea

22:30 SUZKO ZEZENA
Herriko Plaza

23:00 CHICA SOBRESALTO eta DOCTOR DESEO
Herriko Plaza

23:00 Kontzertuak: LAS SEXPEARE, ERROKA eta GORA ETORRI
Txosnagunea

08.17 ASTEAZKENA

09:00 KALEJIRA Lankaietako Lagunak
Herrian zehar

Egitaraua

11:00 XXXI. LAUDIO SARIA - PABLO BILBAO MEMORIALA, txirrindularitza proba
Zumalakarregi etorbidea

11:00 DIANA, Laudioko gaiteroekin
Herrian zehar

11:00 Hasiberrientzako ENTZIERROA
Lamuza Plaza

11:00 FAMILIA GUNEA
Txosnagunea

11:00 PAELLA TXAPELKETA Txilardiak kudrillak antolatuta
Txosnagunea

12:30 ENTZIERROA eta BIGANTXAK, 16 urtetik gorakoentzat
Lamuza Plaza

14:00 65 urtez gorakoen OMENEZKO BAZKARIA eta DANTZALDIA
Lamuza Plaza

14:30 PAELLA JANA eta BINGOA Itzelak kuadrillak antolatuta
Txosnagunea

17:00 ERRALDOI eta BURUHANDIEN kalejira
Herriko Plaza

17:00 CLUEDOPOTEOA Bihurriak kuadrillarekin
Txosnagunetik

19:00 "PIENSA EN WILLIBUR" antzezlana
Lamuza Parkea

20:30 MARIACHIS ZACATECAS
Herriko Plaza

22:00 BINGO MUSIKATUA
Txosnagunea

22:00 JAI TEMATIKOA Galtzagorri kuadrillak antolatuta
Laudio Institutua

23:00 ZEA MAYS
Herriko Plaza

08.19 OSTIRALA

09:00 PADEL TXAPELKETA
Gardeako kirolgunea

08.20 LARUNBATA

08:00 XLIII. TXAPELKETA GASTRONOMIKOA Rakatapla Elkarteak antolatuta
Aldai Plaza

09:00 PADEL TXAPELKETA
Gardeako kirolgunea

11:00 Musika animazioa IZALDE taldearekin
Aldai Plaza

12:30 ACORDES NAVARROS kontzertua
Aldai Plaza

08.21 IGANDEA

09:00 PADEL TXAPELKETA
Gardeako kirolgunea

08.24 ASTEAZKENA

10:30 ESKUPILOTA partidak, Herriaren Pilotazale Elkarteak antolatuta
Lamuza pilotalekuan

Laudioko jaiak

GATXETO ESTANKO
Jaietan ere, zuekin.
@gatxetoestanko
Ibaizabal 2, LAUDIO
94 672 21 42

Aialur
Ingeniería de montes, topografía y medio ambiente
25 urte baino gehiago zuekin
Tel. 945 89 02 56 Fax. 945 89 23 24
> Obrazko topografia
> Lur-sailetako neurketak
> Mugarriztatze eta mugaketak
> Ingurune inpaktuen ebaluazioak
> Ingurune proiektuak
> Baso jasangarrientzako planak
> Proiektu eta aktibitate lizentziak nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenetan
> Pinudien tasazioa
> Balorazio eta tasazioak
Maskuribai Industrialdea, Pab. B-03/ B-10
AMURRIO (Araba) aialur@aialur.com

ENKARKI
ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO
MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA
Eraikuntza, industria, ekitaldiak, lorezaintza eta garbiketa
Ondo pasa jaietan!
Arza II industrialdea, LAUDIO · 946 43 00 42 · enkarki@enkarki.net · www.enkarki.net

IZA ascensores
Marka anitzeko igogailuen mantentze-lanak.
Berehalako erantzuna.
Hurbileko arreta, pertsonalizatua.
www.izaascensores.es 94 672 21 52

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00
75 urte zurekin

PADI PROGRAMA

INPLANTEAK

3D ERRADIOGRAFIAK

DRUM GORRI ARETOA
Ikaskin kalea 5, Laudio (Gardeako tren geltoki alboan)
@drum_gorri_aretoa

AZOKA
Giro lasaiaz eta koktel paregabeaz gozatu
Mundu osoko artisau-garagardoak
Kafe karta, smoothiak, irabiaki naturalak, infusioak, te hotzak, txokolateak...

Alberto Acero enparantza 13 (Laudio) 94 672 42 13 @azokakafebar

Egitaraua

10:30 Haurrentzako JOLAS PAREKA
Lamuza Parkea

11:00 SOKAREN HASIERA eta KALEJIRA Untzueta Dantza Taldeak antolatuta
Nagusien egoitza

11:00 FAMILIA GUNEA
Txosnagunea

11:00 Aldi bereko XAKE partidak, Laudio Xake taldeak antolatuta
Aldai Plaza

11:00 Haurrentzako 3x3 HOCKEY TXAPELKETA
Laudio Institutua

13:00 SOKAREN AMAIERA eta AURRESKUA Untzueta Dantza Taldeak antolatuta
Herriko Plaza

14:00 HERRI BAZKARIA Suziri Jai koordinakundeak antolatuta
Lamuza Parkea

17:00 DANTZA PLAZA Untzueta Dantza Taldeak antolatuta
Lamuza Parkea

17:00 ERRALDOI eta BURUHANDIEN kalejira
Herriko Plaza

17:00 XXV. SAN ROKE HOCKEY TXAPELKETA Ganbegi 6-2 taldeak antolatuta
Gardeako kirolgunea

19:00 KANTUKADA Txosna Batzordeak Antolatuta
Lamuza Parketik

20:30 LOS CHIMBEROS musika emanaldia
Alberto Acero plaza

21:30 Haurrentzako GAU IKUSKIZUNA
Lamuza Parkea

22:30 DANTZA BERTIKALEKO IKUSKIZUNA
Lamuza pilotalekua

22:30 Iluntze musikatua, MALEN ATXA
Txosnagunea

23:00 ZUMBA ERRALDOIA
Txosnagunea

23:00 DESPISTAOS
Herriko Plaza

08.25 OSTEGUNA

10:00 Haurrentzako JOLAS PARKEA
Lamuza Parkea

Laudioko jaiak

11:00 FAMILIA GUNEA
Txosnagunea

14:00 KUADRILLEN BAZKARIA Suziri - Jai Koordinakundeak antolatuta
Aldai Plaza

16:00 LAUDIO'S GOT TALENT Ainubeak kuadrillak antolatuta
Aldai Plaza

17:00 MUTURREKO HERRI KIROLAK Zoroak Inkultur Taldeak antolatuta
Zezen Plaza

18:00 KALE ANIMAZIOA, Laudioko gaiteroekin
Herrian zehar

19:00 ZALDI PROBAK, Lauzaldi Kirol Klubak antolatutua
San Roke udal probalekua

19:30 KALEJIRA, Suziri-Jai Koordinakundeak antolatuta
Zezen Plazatik

20:30 PURO RELAJO
Alberto Acero plaza

20:30 XAIBOR
Lamuza Parkea

22:00 KARAOKEA
Bonaire taberna

23:00 LA PEGATINA
Irukurutzeta

23:00 ZUTIK, DUPLA eta ERRUKI ERROMERIA
Txosnagunea

08.26 OSTIRALA

09:00 Baserritar AZOKA
Aldai eta Herriko Plazak

10:30 BOLA-JOKO San Roke Sari Handia
Udal bolatokia

11:00 Hasiberrientzako ENTZIERROA
Lamuza Plaza

11:00 FAMILIA GUNEA
Txosnagunea

12:30 ENTZIERROA eta BIGANTXAK, 16 urtetik gorakoentzat
Lamuza Plaza

12:30 DANTZA erakustaldia, Itxarkundia Dantza Taldearen eskutik
Aldai Plaza

12:30 PINTXO DASTAKETA, Zintzarriak kuadrillak antolatuta
Elizako arkupeetan

12:30 MIRIKI IPUIN KONTALARIA, haurrentzako ikuskizuna
Txosnagunea

12:30 Kale animazioa BETI-JAI fanfarrea
Herrian zehar

14:30 TXAHALAREN HERRI BAZKARIA
Elizako arkupeetan

17:00 ERRALDOI eta BURUHANDIEN kalejira
Herriko Plaza

17:30 SAN ROKE FUTBOL TXAPELKETA, Oberena-Mirandés B
Ellakuri

18:30 ARTZAIN TXAKURREN ERAKUSTALDIA, Arate Elkarteak antolatuta
Latiorroko pareka

19:00 "MUTE" antzezlana
Lamuza Parkea

19:00 IDI PROBAK, Luzaldi Kirol Klubak antolatuta
San Roke Udal probalekua

20:00 Kalejira eta otarteko jana ELEKTROKELArekin, Itzelak kuadrillek antolatuta
Aldai Plazatik

22:00 SAN ROKE MUSIKA BANDAREN kontzertua
Alberto Acero plaza

22:00 KARAOKEA
Bonaire taberna

23:00 4 BANCOS, ATXURRE eta DANTZETAN JARRAI
Txosnagunea

00:00 LA OREJA DE VAN GOGH
Irukurutzeta

08.27 LARUNBATA

11:00 DIANA
Herrian zehar

11:00 Hasiberrientzako ENTZIERROA
Lamuza Plaza

Egitaraua

12:30 ENTZIERROA eta BIGANTXAK, 16 urtetik gorakoentzat
Lamuza Plaza

13:00 Aldeaquemada herriarekin SENIDETZEKO EKITALDIA, Itxarkundia eta Algarabía taldeek girotuta
Osoko bilkura aretoa

13:30 ARLOTEAK
Herriko Plaza

15:00 HERRI BAZKARIA
Txosnagunea

17:00 ERRALDOI eta BURUHANDIEN kalejira
Herriko Plaza

17:00 BOLA-JOKOA, XIII. San Roke Txapelketa
Lamuza parkeko bolatokia

18:00 HERRI KIROLAK, Arrizkuzubi elkarteak antolatuta
Aldai Plaza

19:00 GORA BIHOTZAK, ikuskizuna
Lamuza Parkea

19:00 Kale animazioa NEW GUFY fanfarrearekin
Herrian zehar

20:00 ODOLOSTE JANA
Herrian zehar

00:00 LA FORMULA
Herriko Plaza

01:00 XII. GALTZONTZILO ETA KULERO LASTERKETA, Azkenak kuadrillak antolatuta
Alberto Acero plaza

01:30 DJ MASA
Txosnagunea

02:00 SAKATU ELEKTROTXARANGA Suziri-Jai Koordinakundeak antolatuta
Alberto Acero plazatik

08.28 IGANDEA

11:00 DIANA
Herrian zehar

11:00 Hasiberrientzako ENTZIERROA
Lamuza Plaza

11:00 PROZESIOA eta MEZA NAGUSIA
San Roke baseliza

12:30 ENTZIERROA eta BIGANTXAK, 16 urtetik gorakoentzat
Lamuza Plaza

12:45 SAN ROKE MUSIKA BANDAREN kontzertua
Aldai Plaza

14:30 SAN ROKE KOFRADIAREN BAZKARIA
Elizako arkupeetan

17:00 ERRALDOI eta BURUHANDIEN kalejira
Herriko Plaza

18:00 ERREKORTADOREAK Euskal Herriko Errekortadore elkartearen eskutik
Zezen plaza

19:00 "ROBINSON CRUSOE" antzezlana
Lamuza Parkea

19:00 Kale animazioa MOLTO VIVACE fanfarrearekin
Herrian zehar

21:30 KORRONTZI taldearen emanaldia, AKELARRE eta ITXARKUNDIA dantza taldeekin batera
Alberto Acero plaza

23:30 KALEJIRA eta ERROKETXUREN ERRETZEA
Laudio Institututik

Laudioko jaiak

KOPAS
IDEIAK GAUZATZEN DITUGU
Gora Laudioko jaiak

Aialako Industrialdea, 8
01479 Murga - Aiara
fabrica@kopas.es
Tfno. 945.39.94.05
www.kopas.es
Alda. Urkijo, 88 -2º
48013 Bilbao
kopas@kopas.es
Tfno. 94.442.22.24

GO enea
RPS 101/19
ODONTOLOGIA
Kalitatezko eta konfiantzazko odontologia, zugandik hurbil
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Araba kalea 2, Laudio
944 200 310 · 690 341 413
www.goenea.com

Haitzulo barri
Jaiak gurekin ospatu!
GAUERO Dj -a
40 urte elkarrekin dantzan

EROSKI
1977tik ZUREKIN Laudion

Digitaliza ezazu zure enpresa "Kit Digital" diru-laguntzaren bidez
50 langile baino gutxiago dituzten enpresa eta autonomo guztiek dute funts galdurako laguntza hori jasotzeko eskubidea.
innotu
info@innotu.com - 94 465 95 80
Info gehiago

Elkarrizketa

“Gure eginkizuna da publikoa hunkitzea eta mugiaraztea”

LA OREJA DE VAN GOGH taldearen kontzertua da aurtengo Laudioko Jaien elementu nagusietako bat eta **HARITZ GARDE** bateriajoleak azaldu du oso pozik sentitzen direla, gero eta argiago baitute pribilejiatuak direla gogoko dutena egiteari esker bizi baitira.

25 urte baino gehiago bete dituzue jotzen, eta azken urte eta erdian, gainera, bira luze batean. Hala ere, lehenengo aldia izango da Aiaraldean joko duzuela. Nolakoa da toki berrietan jotzea, nahiz eta ibilbide oparoa izan?

Oso gustagarria da. Zuk esan bezala, urte pilo egin ditugu eta mundu osoan egon gara. Askotan errepikatzen duzu, baina ilusio handia sortzen du toki berrira joateak, sumatzen baituzu noraino heldu den zure musika. Aldi berean, ezagutzen dituzu toki berriak, zeinetan jendeak ikusi nahi zaituen. Poztekoa da beti eta gogo handiz gaude.

Egia esanda, aurretik bisitatu ez ditugun tokietara joaten garenean, ez da horrela izan behar, baina sentsazioa dugu publikoak gehiago nahi duela gu ikustea.Motibazio berria da eta polita da jende berriarekin topo egitea. Hala ere, ziur nago Aiaraldeko batzuk gure kontzertuetan egon direla jadanik. Hori bai, etxean ikustea ezberdina da eta jendeak gogoko du.

Orain bira izugarri batean zaudete sartuta buru-belarri. Pandemiaren ondorioa da edo biziki gogoko duzue zuzenean jotzea?

Pandemiak eragina izan du, jakina. Iaz hasi ginen zuzenekoak eskaintzen, baina oso modu mugatuan. Jende gutxiagorekin, maskarekin, eserita... Ezberdina zen. Erdizka. Horregatik aurten erabaki genuen proposamen guztiei baiezkoa ematea, gogo handia dagoelako.

Jendeak asko atera behar du

kanpora eta ondo pasatzeko beharra dago, igaro duguna ahazteko. Egia esanda, ez bakarrik atzean geratu dena, baita gerra edo prezioen igoera eroa ere. Beti dago ondo aisialdi apur bat, ihes egitea eta gozatzean bakarrik pentsatzea tarte batez. Finean, abestiak entzun eta hunkitu.

Pandemiaren etenaldiak sentsazio berriak eman dizkizue itzultzean?

Bai, jendea irrikan dago, baita gu ere. Nabaritzen dugu ateratzen garela oholtzara ilusioz eta alaitasunez beterik. Emozio horretaz betetzen gara eta elkar elikatzen gara. Guk guztia eman behar dugu eta jendea hasieratik topera ikusten dugunean, hori heltzen zaigu.

Kontzertu oso onak bizitzen ari gara, badirudi lehenengo biretan gaudela. Iazko kontzertuak murrizketekin ondo egon ziren, baina erdizka geratu ziren. Maskarekin ez genekien gauzak ondo joaten ziren edo ez. Aurten, ordea, izugarri ondo pasatzen ari gara.

Zein kontzertu mota eskainiko duzue Laudion?

Beti bezala, gu bostok oholtza gainean gure abestiak defendatzen gogo handiz. Gehienbat *Un susurro en la tormenta* diskoaren aurkezpena izango da. Disko horren zenbait abesti joko dugu, baina, nola ez, gure ibilbide osoari egingo diogu errepasoa, badakigu publikoak gogoko duela kanta horiek entzutea.

Abesti sorta orekatua izango da, gorantz joango dena amaierara arte. Funtsean, musikak jendea inbaditu dezan espero dugu, eta ondo pasatzea guztiok.

Zuek zer espero duzue publikoaren aldetik?

Guk ez dugu ezer espero. Izan ere, publikoak espero behar du gugatik. Guk mugiarazi eta hunkitu behar dugu. Badakigu publiko ona izango dela, Araba ezagutzen dugu eta. Erantzungo du eta konfiantza osoz joango gara. Eurek exijitu behar dute eta guk eman behar dugu %100.

Gainera, etxetik hurbil diren kontzertuak beti dira politak, gertutasuna eta babesa sentitzen ditugu eta.

Zuen ibilbidearen zein fasean zaudete orain?

Oso une onean gaude orain, kontziente baikara gure zorte onaz. Nahi duguna egitera bideratu dugu gure bizitza, txalotzen gaituzte horregatik, mundu osoan zehar bidaiatu dezakegu...

Bikaina da eta gero eta gehiago gozatzen dugu. Bidea gozatzen ari gara, ez diegu erreparatzen kopuruei, ez salmentei. Urrats bakoitzean gaude zentraturik.

Hala ere, badugu begi bat hurrengo diskoan. Urte amaieran etenaldia helduko da eta konposatzeko gogoak ditugu.

Guk nahiago dugu fase bakoitzari bere tartea ematea. Biran bagaude, horretara, eta konposizioan ere. Guk, adibidez, goiz guztietan lan egiten dugu abesti berrietan eta horretarako nahiago dugu Donostian egotea. Bidaiatzeak kontzentrazioa murrizten du.

"Azken diskoko zenbait abesti joko dugu, baina, nola ez, gure ibilbide osoari egingo diogu errepasoa, badakigu publikoak gogoko duela kanta horiek entzutea"

Bide hain arrakastatsuaren ostean, nondik dator motibazioa aurrera egiten jarraitzeko?

Konturatu gara guk egiten duguna pribilejioa dela. Zuzenean jotzea eta ikustea jendeari zure abestiak heltzen zaizkiola izugarria da. Abesti baten erdian ikusten duzu gizon bat hunkituta dagoela, beste bat negarrez, neska bat dantzatzen...

Horretaz konturatu gara. Izan ere, hasieran dena izan zen oso azkarra eta soilik jarraitzen genituen gertakariak, jabetu gabe. Orain nagusiak garela, barneratzen ari gara bizi izan duguna, bidaiak...

Ikustea jarraitzen dugula hemen eta lau lagunez inguratuta, gainera. Gurekin datorren taldeko jendea ere adiskideak dira. Hortaz, bikaina da.

Saiatzen gara hurrengo kontzertua aurrekoa baino hobea izaten, ondo pasatzen eta norbait une txar batean badago, bera animatzen eta babesten.

Ez dugu ahaztu behar pribilejioa dela hau. Noizbait oso goiz esnatu behar garenean, gogoratzen dugu jende askok ordutegi finkoa duela, eta goiz altxatzen dela. Hori eskertu behar dugu, bereziki publikoari, berak mantendu baikaitu.

Horregatik, norbait hurbiltzen denean, eskertu behar diogu, eurei esker gaude hemen.

Txosna Batzordea

Laudioko Txosnagunea Aldai plaza astintzeko prest

LAUDIOKO TXOSNA BATZORDEAK MAKINA BAT EKINTZA PRESTATU DITUZTE JAI HERRIKOIEN ALDE, ETA SOS AIARALDEA PLATAFORMARI EMANGO DIOTE URREZKO KATXIA

Ate joka daude honezkero Laudioko Jaiak, eta Txosna Batzordeak bere egitaraua iragarri berri du. Abuztuaren 15etik 27ra bitartean orotariko ekintzak prestatu dituzte Aldai plazako karpan, eta beste hainbeste jaieragileren aterpe izango da ere.

Abuztuaren 15ean zabalduko dute txosnagunea, 13:00etan. Aurtengoan, 2019an izandako kokapen berdina izango du espazioak, Aldai Plazako futbol zelaia, hain zuzen ere.

Urtero legez, Urrezko Katxia banatu eta txupina jaurtiko dute egitarauari hasiera eman aurretik. Txosna Batzordeak SOS Aiaraldea plataformari emango dio 2022ko Urrezko Katxia, eta plataformako kideak izango dira festa-giroa piztearen ardura izango dutenak. SOS Aiaraldeak azken urteetan "lan eta bizi baldintza duin batzuen alde eskualdean egindako lan eskerga" aitortu nahi izan dute horrela Txosna Batzordeko kideek.

Beste urte batzuetako eskema jarraituz, musika eskaintza zabala prestatu du Laudioko Txosna Batzordeak, egunerako zein gau parterako. Abuztuaren 15ean Urrats erromeria arituko da 13:30etik aurrera, eta iluntzean, aldiz, Akerbeltzek astinduko du Aldai Plazako karpa.

Abuztuaren 16an, emakume musikariak lehen lerroan jartzeko apustuari helduta, Las Sexpeares, Erroka eta Gora Etorri taldeek girotuko dute gaua, 23:00etatik aurrera.

Atseden astetik bueltan, ordea, Matx sortzaile laudioarrak girotuko du afari musikatua abuztuaren 24ean. Abuztuaren 25ean Zutik! eta Dupla bandak igoko dira oholtzara Erruki erromeriak gauari itxiera eman aurretik.

Baserritar eguna, aldiz, eskualdeko musikarien eguna izango da, 4 Bancos, Atxurre eta Dantzetan Jarrai taldeen parte hartzearekin. DJ Masa gaztea arduratuko da Odoloste egunean festa-giroa goizeko ordu-txikiak arte luzatzeaz, 2019ko edizioan egin bezala.

Musika eskaintzaz harago, familientzako eta, bereziki, herriko gaztetxoenentzako egitarau zabala prestatu dute ere Txosna Batzordetik. 'Familia Gunea' atonduko dute egunero Aldai plazan, Kirikiño Atseden Taldeko kideen laguntzarekin; bertan puzgarriak eta bestelako jolasak eta jarduerak jarriko dituzte haurren eskura.

Haurrentzako ikuskizunak ere eskainiko dituzte. Abuztuaren 17an, 12:30ean, Sorginlarrenek prestaturiko Kultur Tantak ikuskizuna taularatuko dute. Abuztuaren 26an, aldiz, Miriki ipuin-kontalariak jarriko du haurren imajinazioa dantzan.

OKINDEGIA - PANADERIA
iZA
DESDE 1956
ARTISAU-OGIA
Ogi berezi eta osansuntsuak
Gora San Rokeak eta gora ogi osasuntsua!

Euskadiko urrezko mamia saria
Kurtzegan, 3 · Orozko 94 661 00 68 / Zumalakarregi, 30 · Laudio 94 672 84 94
okindegiaizahnospanaderia@gmail.com @panaderiaiza @iza_okindegia_panaderia

Laudioko Jaiak

Elkarrizketa

“Jaiak ez dira berdin bizitzen barrutik edo kanpotik”

MIRIAM AGÜERO SUAREZ (Laudio, 1991) eta **ENEKO SANCHEZ GINEA** (Laudio, 1997) Itzelak eta Azkenak kuadrilletako kideak dira hurrenez hurren, eta Laudioko Suziri Jai Batzordearen barruan dabiltza sanrokeetarako ekintzak antolatzen. Jaietan aktiboki parte hartzeko deia luzatu diote herritar orori.

Hiru urte igaro dira Laudioko Jaiak azkenekoz ospatu zirenetik. Zaila izan da berriz martxa hartzea?

Miriam Agüero Sanchez: Apur bat kostatu zitzagun hasieran. 2020. urteko abuztuan bagenuen zeozer egiteko asmoa, baina azkenean ez genuen ezer egin, Udalak esan zigulako ezin zela ezer antolatu, osasun egoeragatik. Horregatik, bertan behera geratu ziren buruan genituen ekintza horiek. Aurten otsailean hasi gara biltzen. Berandu da hori, normalean aurreko urteko azken hilabeteetan hasten baikara Sanpedropekoetarako ekintzak pentsatzen.

Eneko Sanchez Ginea: Izan dugun geldialdiak eragina izan du gure antolakuntzan, baina egia da baita tramite guztiak aurreratuak genituela jada, aurreko urteetatik. Horrek oinarri bat eman digu gauzak aurrera ateratzeko eta gure artean hobeto koordinatzeko orduan.

Hiru urteko etenaldi honek kuadrillen mugimendua ahuldu duela uste duzue? Edo, kontrara, gogo gehiagorekin heldu diozue jaien antolakuntzari?

E.S.G.: Bi egoerak jazo direla esango nuke. Alde batetik, oso erreta zeuden pertsona batzuk Suziri Jai Batzordetik joan dira. Baina, era berean, pixka bat erreta zeuden beste batzuek gogoz hartu dute aurtengo jaien antolakuntza.

M.A.S.: Hiru urte hauek ‘opor’ moduko batzuk izan direla esan daiteke (barreak), balio izan digu gauzak lasaitasun handiagorekin hartzeko. Otsailean hasi ginen berriz martxan, gogo handiekin. 15 egunero bildu gara, eta jendea gogotsu dago.

Nolakoak izango dira aurtengo jaiak?

M.A.S.: Saiatu gara betiko programa errespetatzen, gutxi gorabehera.

“Berrikuntzak sartu ditugu betidanik egiten diren ekintza batzuetan, aire freskoa emateko”

Ekintza batzuk ‘historikoak’ dira, eta horiek errepikatzeko asmoa dugu. Baina badaude baita ekimen berriak.

Zeintzuk?

E.S.G.: Jai tematiko bat egingo dugu, adibidez. Horrez gain, berrikuntzak sartu ditugu betidanik egiten diren jarduera batzuetan, aire freskoa emateko.

M.A.S.: Jai tematikoa betidanik egiten da, baina aurten buelta bat emango diogu ekimenari. ‘Zirkua’ izango dugu ardatz.

Jaiak baino lehen ere baduzue zer egin: pankartak, ekintzen prestaketa... Nola bizi duzue atzera kontaketa?

E.S.G.: Azkeneko txanpan murgilduta gaude uneotan. Apur bat kaosa izaten ari da kuadrilen arteko koordinazioa: azken kontratazioak egitea, azken orduko erosketak burutzea, fakturak biltzea, txosna txandak banatzea, pankartak margotzea...

M.A.S.: Niretzat oso esanguratsua izan da txarangak lotzeko izan dugun zailtasuna. Toki guztietan gabiltza dena azken orduan lotzen. Eskaera handia dago, eta horrek asko konplikatu du txaranga eta erromeriak lotzea, denak daudelako lanez gainezka.

Zergatik da garrantzitsua Suziri Jai Batzordearen barruan antolatzea?

E.S.G.: Egia da lan egin behar dela, ez dugu gezurrik esango. Baina egia da baita ere ez dela berdina jaiak barrutik edo kanpotik bizitzea. Kuadrilletan aritzen bazara eta Laudioko Jaiak barrutik nolakoak diren ikusten baduzu handitu egiten da elkartasun-giroa eta askoz modu sanoagoan gozatzen da. Ez duzu zure kuadrillarekin bakarrik gozatzen, herri osoarekin baizik.

Elkarrizketa osoa Aiaraldea.eus atarian ikusgai.

Elkarrizketa

“Ikusi ez duenak, ez daki zer den hau: etorri eta bizi! Zuzenekoak dira gure indargunea”

BEÑAT ORIBE GARMENDIA eta **GARI URIARTE OVEJAS** (Agurain, 1994) dira Dupla taldeko protagonistak. Abestiak sortu ez ezik, zuzeneko “bizia” eta “bisuala” taularatzen dute. Laudioko jaietan egongo dira, besteak beste, abuztuaren 26an, Txosnagunean.

Laudioko jaietan egongo zarete. Ez, ordea, lehenbiziko aldiz.

Laudion eta Amurrion jo izan dugu, baina parranda testuingurutik kanpo. Laudion, frontoian egon ginen pandemian, jendea aulkietan eserita zegoela. Amurrion, Burubion, birritan egon gara, asteburuetan. Jaietan ez gara egon inoiz, espero dugu harrera ona izatea: jendea dantzan eta zutik ikustea. Guk beti ematen dugu egurra!

Nolatan sortu zenuten Dupla?

2019ko udan eman genuen Duplaren lehen kontzertua, baina betidanik ibili gara musika egiten eta saltseatzen. 2018 bukaeran atera ginen Dupla gisa, eta hortik aurrerakoa jendeak ikusi duena da.

Zer da Dupla? Nola definituko zenukete Dupla?

Musika egiten duen bikote bat gara. Estiloari dagokionez, elektronika, hip-hop, rock... Elektronikoa esango genuke, guk. Orain, irratia piztuz gero, entzuten den gehiena elektronikoa da: ordenagailuarekin egiten den musika (rocka kenduta).

2019an sortu zenuten taldea. Denbora gutxien jo duzue goia.

Guk ez dugu horrela ikusten,

egunero bizi izan dugulako prozesua. Guretzako egunerokoa da kontzertuak prestatzea, sortzea... Oso prozesu normala izan da, hasieratik argi genuen proiektu txukuna nahi genuela. Bizitza erdia daramagu musikagintzan, eta gauzak ondo egin nahi izan ditugu beti. Hori izan da taldeko premisa nagusia.

Zer du zuzenekoak berezitik?

Ikusi ez duenak, ez daki zer den hau: etorri eta bizi! Zuzenekoak dira gure indargunea, eta hor ikusten da zer egiten dugun. Espektakulu bisuala da, jendeari begietatik sartzea bilatzen dugu. Dena harilkatua egotea nahi dugu. Dupla ezagutzen ez dutenek ere badute beti abesti ezagunen bat: zuzenekoak asko zaintzen ditugu. Guretzat ordubeteko showa da. Hasieratik bilatzen dugu jendea zuzenekoan sartzea.

Udako zurrunbiloan sartuta, zein da zuen aurtengo plana?

Jo, jo eta jo. Astero 2-3 kontzertu ditugu, udaran 20-30 bat izango dira. Otsailean bira hasi genuenetik 50 emanaldi inguru ditugu zenbatuta.

Aukerak ala oztopoak, zer ditu gehiago gazte sorkuntzak?

Beti egongo dira mugak, baina ikasi eta hezitu beharra dago: musika ez da bakarrik abestiak egitea, gauza asko dira; kantuak egiten, ateratzen eta promozionatzen jakin behar duzu. Gauza asko dira, eta hori ikasi egiten da. Guk lehen ateratzen genituen kantak lagunek entzuten zituzten bakarrik. Musikaria izateko ez da aski kitarra jotzen jakitea.

Sortzea bezain garrantzitsua da, gorpuztea beraz.

Letra politak ateratzea ere inportantea da, jendeak ulertu eta onartu behar du. Gero, bada puntu polit bat: inork ez daki zertan zabiltzan. Hala ere, badira gauza batzuk denok egiten ditugunak, eta ikasi behar direnak. Belaunaldi berriekin kontu asko aldatu dira: musikaz gain, zuzenekoa, merchandisinga... kudeatzen ditugu orain.

Zein mezu nahi duzue jaso edo zabaldu, Laudioko kontzertuaren bidez?

Mezua baino, energia da kontzertuen bidez zabaldu nahi duguna. Jendeak gure energia barnean sartzea bilatzen dugu: euforia uneetan tope egotea, edota balada denean lasaiago sentitzea. Partida batera gisa joaten gara gu zuzenekotara, dena ematera. Era berean, jendeak guri ere energia ematea nahiko genuke, baina ez dugu ezer eskatzen. Laudion, adibidez, musukoarekin eta eserita zeuden azken kontzertuan. Onena jendeak gure sinergia jasotzea eta emaeta nahi dugu, feedbacka.

Belaunaldi berrien erreferenteetako bat zarete. Zer esango zeniekete sortzaile gazte berriei?

Musika egitea, elkartzea eta lotsa gabe ateratzea. Herrian edo inguruan norbait baldin badago, batu eta egin. Lehenbizikoan ez da ondo aterako, baina ekin! Lehenbiziko kantuak ere oso garrantzitsuak dira... Guk ez dugu talentu ez magia berezirik: ekin, eta batez ere, bidea disfrutatu!

“Espero dugu harrera ona izatea: jendea dantzan eta zutik ikustea. Guk beti ematen dugu egurra!”

Mugimendu Feminista

“Guztiok dugu espazio seguru eta erasorik gabekoak sortzeko erantzukizuna”

BI EKIMEN NAGUSI BULTZATUKO DITU LAUDIOKO MUGIMENDU FEMINISTAK HERRIKO JAIETAN: 24 ORDUZ ERASO MATXISTAK SALATZEKO TELEFONOA ETA MANIFESTAZIOA.

Laudioko Mugimendu Feministak herriko festetako ekimenak aurkeztu ditu. “Batetik, eraso matxisten aurkako protokoloa jarriko dugu martxan, eta bestetik, abuztuaren 26an mobilizazioa egingo dugu”. Modu horretan nahi dituzte jaiak ere espazio seguru eta libreak izatea guztientzat.

Garaiak aldatu arren, indarkeria matxistak eta sexismoak presente darrai, euren ustez. “Beste urte batez, Mugimendu Feminista gisa, jai eremuan eragiteko ardura dugula pentsatzen dugu; antolatzeko beharra dago, oraindik ere eraso matxista asko gertatzen baitira”. Funtsean, aurre egiteko eta “erasotzaile guztiei hortzak erakusteko” bi ekimen horiek saretu dituzte abuztuaren 15etik 17ra, eta 24tik 28ra.

Duela urte batzuk moduan, 24 orduko telefonoa izango du abian Mugimendu Feministak, eraso matxistarik balego salatu eta erasoa jasan duen pertsonari babesa adierazteko. “Sare sozialetan zabalduko dugu zenbakia, baita kartelen bidez ere. Eta, horrez gain, jaietako esparru ezberdinetan egongo da ikusgarri telefono zenbakia”. Horretarako, tabernetan, herriko kaleetan zein txosnagunean kartelak edota komunikaziorako bitartekoak jarriko dituzte, aurreratu dutenez.

Abuztuaren 26an, manifestazioa

Bestalde, Baserritar egunean urtero egin izan duten mobilizazioa mantenduko dute. “Helburua, gertatzen diren eta ikusten ari garen eraso matxisten olatuen aurrean, planto egitea da; eta antolatuta gaudela bistaratzea”. Zentzu horretan, mezu argia zabaldu dute: “Gertatzen dena gertatzen dela, aurre egiteko prest egongo gara. Ez dugu inolako erasorik onartuko”. Mobilizazio jendetsua aurreikusi dute ostiral horretan, “denok dugulako zer esana eta posizionatzeko ardura”. Beste urte batzuetan bezala, zapiekin bertaratzeko deia luzatu dute: “Jende guztia animatzen dugu zapi moreekin mobilizaziora gerturatzera, ekimena deigarriagoa eta koloretsuagoa izateko”.

Ildo beretik, manifestazio mistoa izango dela nabarmendu dute, “baina emakumeok* hartuko dugu lehen lerroa eta protagonismoa”. Hargatik, herritar eta inguruko bidelagun oro gonbidatu dute protestan parte hartzera. “Badakigu gaur egun ere beharrezkoa dela kalera ateratzea erasoak salatzera”, gehitu dute.

Jai giroko jarrera edo joera matxistez galdetuta, adibide ugari aipatu dituzte: espazioen okupazioa generoka, oholtzetako edota ekitaldietako protagonisten generoa, barraka edota tabernetako musiken mezu sexistak... “Oraindik ere, kaleak, jaiak... espazio guztiak gureak ere badirela aldarrikatzera atera behar gara. Argi izan: hor egongo gara eraso guztien aurrean antolakuntza feministarekin aurre egiteko”.

Asteak daramatzate prestaketa lanetan, jakinarazi dutenez. Eraso matxisten protokoloaren lantaldeko kideak saretzen, komunikazio bitartekoak sortzen... Aurrera egiteko garaia dela garbi dute: “Denok dugu erantzukizuna gertatzen den eraso oro salatu eta espazio seguruak guztion artean sortzeko. Gizonezko konplizeekin, emakumeak saretzearen bidez, antolatuz... Hori bermatzeko ahal den guztia egingo dugu Mugimendu Feministatik ere”.

Laudioko Txosnak 2022

Egotetik egitera!

ABUZTUAK 15-28
ALDAI PLAZA

15

13.00
Txosnen irekiera eta
URREZKO KATXIAren banaketa

13.30
ERROMERIA
URRATS

22.00
ERROMERIA
AKERBELTZ

16

11.00
FAMILIAGUNEA
Puzgarriak, jolasak, buztin tailerra...

23.00
KONTZERTUA
LAS SEXPEARE

KONTZERTUA
ERROKA

KONTZERTUA
GORA ETORRI

17

11.00
FAMILIAGUNEA
Puzgarriak, jolasak...

12.30
HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA
KULTUR TANTAK
Sorginlarren

14.30
HERRI BAZKARIA ETA BINGOA
Txosnagunean

17.00
KLUEDOPOTEOA
Txosnagunetik

21.30
BINGO MUSIKATUA

24

11.00
FAMILIAGUNEA
Puzgarriak, jolasak...

19.00
KANTUKADA
Dantza plazatik

21.30
ILUNTZE MUSIKATUA
MALEN ATXA
Ondoren
ZUMBA Erraldoia

25

11.00
FAMILIAGUNEA
Puzgarriak, jolasak...

14.30
KOADRILEN ARTEKO
HERRI BAZKARIA

16.30
LAUDIO'S GOT TALENT

23.00
KONTZERTUA
ZUTIK

KONTZERTUA
DUPLA

ERROMERIA
ERRUKI

26

11.00
FAMILIAGUNEA
Puzgarriak, jolasak...

12.30
HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA
MIRIKI IPUIN KONTALARIA
Goizean zehar
ERRALDOIKETAKO ARGAZKI ERAKUSKETA

23.00
KONTZERTUA
4 BANCOS

KONTZERTUA
ATXURRE

DJ FESTA
DANTZETAN JARRAI

27

11.00
FAMILIAGUNEA
Puzgarriak, jolasak...

14.30
HERRI BAZKARIA
Txosnagunean

1.30
DJ FESTA
DJ MASA

LAUDIOKO TXOSNA BATZORDEA
egotetik egitera!

BABESLEA:
LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Latiorroko Jaiak

Latiorron eskainiko dute udako jaietako azken traka

LOWE, MOONSHINE WAGON, LYRIKAN ETA OXABI ERROMERIA TALDEEK JOKO DUTE AUZOKO JAIETAN. HORREZ GAIN, PUMP TRUCK ERAKUSTALDIA EGONGO DA LARUNBAT ARRATSALDEAN.

Jaia ez da sanrokeekin amaituko Laudion. Herriko festa nagusiak bukatu eta hiru astera hartuko dute lekukoa Latiorrokoek. Hiru egunez luzatuko dira ospakizunak auzoan, irailaren 16tik 18ra.

Ohiko eskema jarraituko festak, urtero errepikatzen diren ekintzak gorpuztuko baitute egitaraua. Latiorro Eskolako haur, irakasle eta gurasoek emango diote hasiera jaiari, danborradarekin. Larunbatean, aldiz, mendi lasterketaren XII. edizioarekin hasiko dute eguna, eta ohiko herri bazkaria egongo da gero.

Igandean, aldiz, Marmitako txapelketa izango da jarduera nagusia. Topaketa gastronomikoaren XXXI. edizioa izango da aurtengoa.

Pump truck erakustaldia

Hala ere, berrikuntzak ere sartu dituzte programan, pump truck erakustaldia kasu. Auzoan aurten ireki den pista berrian egingo dute ekintza hori.

Jai-giroa goizeko ordu txikietara arte luzatuko da ostiral eta igandean, musika eskaintza oparoarekin. Lehen egunean Lowe eta Moonshine Wagon igoko dira txosnaguneko oholtzara. Biharamunean, aldiz, Lyrikan eta Oxabi erromeriaren txanda izango da. Horrez gain, DJ Diskodantza egongo da bi egunetan, parranda luzatzeko.

Kostata, baina aurrera

Jai Batzordeko kideek aitortu dute kostatu egin zaiela jaien antolakuntzari berriz heltzea. “Hiru urteko geldialdia eta gero, amatasun eta aitatasun bajak tarteko, batzorde kide gutxiren artean lan guztia egin behar izan dugulako”. Hala ere, festek “betiko izaerari” eutsiko diotela ziurtatu dute.

Horrez gain, nabarmendu dute egitaraua oraindik ez dagoela guztiz itxita. Horregatik, auzoko “auzoko eragile aktibo guztien elkarlana eta inplikazioa” beharrezkoa izango dela adierazi dute: “ostalaritza, gizarte zentroak, guraso elkartea...”. Horretarako, posta elektroniko bat jarri dute (lateorroko.jaiak@gmail.com) antolakuntzan parte hartu nahi duen ororen eskura. “Lateorroko Jai Batzordeak-Bizi eta gozatu elkarteak irailaren 16tik aurrera, Latiorroko Jaiak gozatzeko deia egiten du, errespetuz, jan, edan, besarkatu, musukatu, konpartitu, dantzatu eta aldarrikatuz!”.

- Eramateko tortillak
- Errazioak: pernila, txorizo eta saltxitxoi iberikoak
- Gure ardo-sortaz gozatu

Erreserbatu
94 672 10 09 telefonoan
tortilla edota errazioak

Nerbioi kalea 3, Laudio

Laudioko Jaiak

el Lio
Bazkariak, afariak eta LIO handia
LIO gauak
Gozatu terraza hoberenaz
Zubiko Kurajo 11, LAUDIO 620 128 948 @elliolaudio

BAIMENDUN INSTALATZAILEA
Iturgintza - Berogailua - Gasa - Aire girotua
CASTRO
David Castro
Zoru erradiatzaileen eta Aerotermiaren instalatzailea
IG-B gas instalatzailea
Instalazio termikoen kokatzea eta mantenua
Iturgintza instalatzailea
Elexondo 24, Amurrio (Araba) · kaxyus@hotmail.com
676 02 33 93 · 685 26 69 31 · 669 15 41 52
www.fontaneriacastro.com

CHARCUTERIA-URDAITEGIA
ANA MARI
DESDE 1985TIK AURRERA
ABASTOS PLAZA, LAUDIO EGIN ZURE ESKAERA 94 672 03 91 - 620 01 41 74

TOÑI ARRAINDEGIA
Jai zoriontsuak!
Laudioko Abastos Azokan
toniarraindegia@gmail.com
621 21 65 98 • 650 42 13 51

JAI ZORIONTSUAK!
babiotec®
suministros
Industriarako hornidura integrala
Laudioko industrialdea 3-1 pab., Laudio / 945105479
babiotec@suministrosbabiotec.com / www.suministrosbabiotec.com

café araba
Pintxoak
Sandwichak · Bokatak
Errazioak
Zumalakarregi etorbidea 35,
LAUDIO
94 672 38 08
Jaietan egin gurekin topa!

Latiorroko Jaiak

09.16 OSTIRALA

18:00 DANBORRADA

19:00 TXUPINAZOA, BURUHANDIAK eta umeentzako ikuskizuna

21:00 LOWE, MOONSHINE WAGON eta DJ DISKODANTZA

09.17 LARUNBATA

8:00 XII. MENDI MARTXA

11:00 Puzgarriak, tailerrak eta jolasak
Kirikiñoren eskutik

12:00 Igel txapelketa

13:00 Laudioko Musika Bandaren KALEJIRA eta poteoa ARLOTEekin

14:30 HERRI BAZKARIA

16:30 Bingoa eta musa

17:00 Kalejira Izalderekin

17:30 PUMP TRUCK

20:00 Akelarre dantza taldearen erakustaldia

21:00 LYRIKAN, OXABI eta DJ DISKODANTZA

09.18 IGANDEA

8:00 XXXI. MARMITAKO TXAPELKETA

11:00 Lankaietako Lagunaken kalejira

13:00 Dantza emanaldia
Itxarkundia taldearekin

14:00 Zozketa eta sari banaketa

15:00 Marmitako bazkaria

16:30 Bingoa

19:00 Txokolatada

Laudioko Jaiak

Orozkoko jaiak

Abuztuaren 31tik
irailaren 4ra

Pedro Mari Intxaurraga

Orozkoko alkatea

Hiru urte itxaron izan behar ditugu, baina azkenean hemen datoz gure herriko jaiak. Irrikitan gaude orozkoarrok, suziriarekin festa lehertu, eta alaitasunez gainezka kalera irtetzeko. Goizetik gauera, guztiok izango dugu geure txokoa. Guztiok gaude gogotsu, baina gogora dezagun, gure atzetik, beste norbaitek beti jarraituko duela jaietan.Urtero legez, egin dezagun orozkoarrok ahalegintxo bat, eta manten dezagun gure herria ahalik eta garbien.Gogoratu ditzagun gurekin ez daudenak, tamalez itzuliko ez direnak, baina gure festak maitatzen irakatsi zigutenez, gure alaitasunarekin poztuko liratekeenak.Gogoratu ditzagun baita ere, gurekin elkartu ezin dutenak, baina lehenbailehen gure artean izan nahiko genituzkeenak ere. Azkenik, ez dezagun ahaztu Orozko harrera herria garela, beraz, izan gaitezen abegikor gurera datozen guztiekin.

Festak festa, EZ dezagun inoiz muga ahaztu. Ezetza, edonon, edonoiz, edonola; EZ beti da EZ!

Osasuna, indarra eta batasuna

Festak festa, EZ dezagun inoiz muga ahaztu!

Elkarrizketa

“Herritarrei esango diegu asko disfrutatu dezatela familiarekin, lagunekin, auzokideekin... baina beti besteenganako errespetuz”

AGATE DEUNA ABESBATZA arduratuko da, bi urteko hutsunearen ostean, Orozkoko Sanantolin jaiei hasiera emateaz, abesbatzak izango baitu jaietako pregoia irakurtzeko ohorea. 30. urteurrena ospatzen ari dira aurten, eta abesbatzaren iraganaz eta etorkizunaz mintzatu dira Aiaraldea Komunikabidearekin. Pregoian landuko dituzten kontu batzuk ere aurreratu dituzte.

Jaietako pregoilariak izateko gonbita jaso duzue aurten. Nola hartu duzue proposamena?

Antolinzaleak jai-batzordearen bileretan erabakitzen da nor izango den pregoilari urte bakoitzean.

2017an Agate Deuna Abesbatzak 25 urte betetzen zituenez, pregoilari izateko aukera planteatu zen, baina urte horretan Jose Arrueren hiletaren 40. urteurrena ospatzen zenez, erabaki zen bera izendatzea pregoilari Blas de Oterorekin batera. Aurten abesbatzak 30 urte bete dituenez, aukera horretaz baliatu eta berriro planteatu zen abesbatzaren izena eta guk oso gustura hartu dugu lekukoa.

Nolakoa izan da 30 urte hauetako ibilbidea? Asko aldatu da abesbatza?

Asko aldatu da, bai! Hasierako abesbatza hartatik 4-5 pertsonak bakarrik jarraitzen dugu gaur egun. Kopuru aldetik hasieran pertsona gehiago ginen, batez ere emakumeak eta gehienak Orozkoarrak ginen. Musikalki ez genuen ezagutza handirik, ez solfeoaz, ez ahots teknikaz. Gaur egun 25-27 kide gara, gutxi gorabehera erdia emakumeak eta erdia gizonezkoak. Orozkokoak

“Ibilbide luze honetan musikalki asko hazi gara, baina batez ere gure lorpen handienetako bat hain pertsona desberdinak izanik hain talde sendoa lortzea izan da”

batez ere, baina Laudioko, Urduñako, Amurrioko... jendea ere badago.

Pandemia egoerak zailtasun ugari ekarri ditu, besteak beste, sektore kulturalera. Zuek ere igarri duzue? Nola? Nola egin diozue aurre?

Gogorra izan da, bai. Guk ez dugu entseatzeko aukerarik izan, debekatuta geneukan. 2021eko irailean ekin genion berriro entseatzeari baina musukoarekin eta gure artean distantziak mantenduz, horrela agintzen zuen abesbatzen protokoloak. Zaila izan da horrela abestea, baina moldatu gara, gogotsu geunden bueltatzeko eta.

Nola ari zarete ospatzen abesbatzaren 30. urteurrena?

Bada normala den bezala, abesten ospatzen ditugu momentu bereziak eta aurten gospel kontzertu bat eskaini genuen sanjuanetan. Orain jaietan dugu burua, eta horren ostean, agian, txangoren bat egingo dugu.

Bi urteren ondoren, sanantolin bereziak izango dira aurtengoak. Nola biziko dituzue zuek?

Imagina, gainera pregoilari izanda! Uste dut gutariko asko ez garela etxetik asko pasatuko aurtengo jaietan! Beti ezagutu ditugun sanantolinen tankerakoak izatea espero dugu, parte-hartzaileak, jendetsuak, alaiak eta musikaz beterikoak.

Zer mezu helaraziko duzue pregoian?

Oraindik ez dugu pregoia idatzi, kide guztien ideiak bildu nahi ditugu. Bi urte gogor hauen ostean herritarrei esango diegu asko disfrutatu dezatela familiarekin, lagunekin, auzokideekin... baina beti besteenganako errespetuz.

Etorkizunari begira, nola ikusten duzue abesbatza?

Ibilbide luze honetan musikalki asko hazi gara, baina, batez ere, gure lorpen handienetako bat hain pertsona desberdinak izanik hain talde sendoa lortzea izan da. Gainera errepertorio zabala dugu eta oso estilo desberdinak jorratzen ditugu, asko gustatzen zaigu berritzaileak izatea eta gogotsu hartzen ditugu erronka berriak.

Asko disfrutatzen dugu kantatzen eta horrek batu egiten gaitu, beste gauza guztiak aldera utzita. Horrela jarraituz gero etorkizun polita ikusten diogu abesbatzari, kide batzuk joan eta beste batzuk etorriko dira, baina Agate Deuna Abesbatzak bizirik jarraituko du.

Egitaraua

08.31 ASTEAZKENA

11:00 PAELLA TXAPELKETA
Jentilzulo

19:00 TXUPINAZOA eta BURUHANDIAK
Zubiaur plaza

19:05 ESKUPILOTA eta GOMAZKO PALETA partidak
Frontoia

20:00 SARDINA JANA

20:00 Antzerkia "GAZTE"
Lehendakari Agirre plaza

22:00 KONTZERTUA
Jentilzulo

22:30 AKERBELTZ ERROMERIA
Zubiaur plaza

09.01 OSTEGUNA

10:00 PINTURA LEHIAKETA
Zubiaur plaza

11:00 JOLAS PARKEA
Zubiaur plaza eta Lehendakari Agirre plaza

14:00 HAURRENTZAKO BAZKARIA
Eskola

15:00 HAURRENTZAKO JOLASAK
Eskolako patio estalia

16:00 JOLAS PARKEA
Zubiaur plaza eta Lehendakari Agirre plaza

17:00 MUS-AZKAR TXAPELKETA
Jentilzulo

19:00 MOZORRO LEHIAKETA
Zezen plaza

20:30 DISKODANTZA eta haurren irrintzi txapelketa
Zubiaur plaza

22:30 Kontzertua, HILEAN BARIKU BAT
Jentilzulo

09.02 OSTIRALA

10:00 Kalejira BETI JAI fanfarrearekin
Herrian zehar

11:00 MEZA
San Antolin baselizan

11:00 GARRAFA LEHIAKETA
Herrian zehar

11:30 ESKUPILOTA eta GOMAZKO PALETA partidak
Frontoia

13:00 BERTSO SAIOA
Zubiaur plaza

18:00 BATUKADA BaTTuere taldearekin
Frontoia

18:30 ZEKORKETA
Zezen plaza

11:30 EZKER PARETA finala
Frontoia

21:00 AKATZ eta THE CHERRY BOPPERS, OrozkoRock elkartearen eskutik
Zubiaur Plaza

00:30 DJ
Jentilzulo

01:30 DJ OIHAN VEGA
Zubiaur plaza

ZUTOIN
PODOLOGIA LAUDIO
OINEN ZAINTZA INTEGRALA
- Podologia pediatrikoa
- Azterketa biomekanikoa + 3D barne-zola
- Podologia onkologikoa
- Kirurgia

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
KARMEN KALEA 15, 1.solairua LAUDIO
94 672 52 57
laudiopodologia@gmail.com

Orozkoko jaiak

OKINDEGIA - PANADERIA IZA DESDE 1956
ARTISAU-OGIA
Ogi berezi eta osansuntsuak
Gora San Antolinak eta gora ogi osasuntsua!

Euskadiko urrezko mamia saria
Kurtzegan, 3 · Orozko 94 661 00 68 / Zumalakarregi, 30 · Laudio 94 672 84 94
okindegiaizahnospanaderia@gmail.com @panaderiaiza @iza_okindegia_panaderia

plaza amurrio,sa
ERAIKUNTZARAKO HORNIGAIAK
zure estiloa eraikiz, zure etxea sortzen
Zankueta industrialdea, Larrinbe 945 89 02 93
www.plazaamurrio.com

ENEKO TABERNA
Gorbeia 11 behea, Orozko
946 56 77 36

soilik BAI da BAI
ezpelabarri
zubieta etorbidea 1 - Orozko
Tfnoa. 946330656
Ogi-barietateak Gorbeiako Produktoak
Lorak Tartak eta Pastelak Prentsa

IZA ascensores
Marka anitzeko igogailuen mantentze-lanak.
Berehalako erantzuna.
Hurbileko arreta, pertsonalizatua.
www.izaascensores.es 94 672 21 52

EKILORE
ZUBIAUR PLAZA, 1
OROZKO
946 330 679
· ILEAPAINDEGI MISTOA
· ESTETIKA
· SOLARIUMA
· IRRATI FREKUENTZIA SISTEMA

JATETXE IZA
Gauero afariak
abuztuaren 31tik irailaren 4ra
Gorbeia kalea 7, OROZKO 94 661 00 03
@izajatetxea

ARTIÑANO ETXEA
Familientzat, kuadrillentzat, nagusientzat, txikientzat...
Guztiontzako leku berezia ingurune zoragarri batean

OROZKO 622 04 87 98 @artinanoetxea

GENERALI
Aseguru perfektua bilatzea, inoiz ez da hain erreza izan!
Kotxea, Etxea, Inbertsioak, Bizitza aurrezkiak, Komertzioa, Istripuak, Heriotza Asegurua...
ARITZ AMORRORTU ETXEBARRIA
Agente esklusiboa
946 610 361- 688 856 744
artitzamorrortu@generalimediadores.es
Gorbeia 6, behea Orozko (Bizkaia)

Etorri eta galdetu!

Egitaraua

09.03 LARUNBATA

09:00 III. Orozko Harana PINTURA LEHIAKETA
Museoa

10:00 Kalejira BETI JAI fanfarrearekin
Herrian zehar

10:00 MARMITAKO TXAPELKETA
Eskolako jolastoki estalia

11:00 MEZA
San Juan parrokia

11:30 Herri Kirolak
Frontoia

11:30 ZEKORREN ATERATZEA
Zezen plaza

13:00 DANTZALDIA
Zubiaur plaza

14:30 Jubilatuen BAZKARIA
Frontoia

16:00 MUS TXAPELKETA, Orozkoko EAJk antolatuta
Zubiaur plaza

17:00 FUTBOL PARTIDAK
Ibaiondo

18:30 GARAGARDO DASTAKETA
Jentilzulo

18:30 ZEKORKETA
Zezen plaza

20:00 CHUCIN IBAÑEZ & GARBIALDI BANDA mariatxiak
Zubiaur plaza

22:00 IRRINTZIAK
Zubiaur plaza

23:00 Kontzertua, BOIKOT
Gorbeia kalea

00:30 Kontzertua, SUAIA & DUB AKUSTIK eta STEPI SELEKTHA
Zubiaur plaza

01:00 DJ MARKELIN
Zubiaur plaza

09.04 IGANDEA

10:00 Kalejira ELTXUA txarangarekin
Herrian zehar

12:00 JOKO POTEOA, Adie elkarteak antolatuta
Herrian zehar

15:00 HERRI BAZKARIA
Eskolako jolastoki estalian

17:00 Erromeria TRIKIDANTZ taldearekin
Zubiaur plaza

17:00 DJ KUBABILLY
Jentilzulo

19:00 BIGANTXAK
Zezen plaza

20:30 DJ UXUN & TATUN
Jentilzulo

21:00 Erromeria TRIKIDANTZ taldearekin
Zubiaur plaza

23:00 TXOKOLATE JANA
Zubiaur plaza

00:00 JAI AMAIERA
Zubiaur plaza

Txosnagunetik “espazio propioetara” mugituko dira Jentilzulo eta Supelaur

EGITARAU ZABALA PRESTATU DU OROZKOKO JENTILZULO KULTURGUNEAK HERRIKO JAIETARAKO, AZKEN URTEETAKO FORMATUA MOLDATUTA.

Txosnagune gabe biziko dituzte aurten Orozkoko Sanantolin jaiak. Horrek, baina, ez du festen parte hartzea eragotziko. Hala espero dute, behintzat, Orozkoko eragileek. Gazte Asanbladak, Supelaur elkarteak eta Jentilzulok osatzen zuten batzordea, baina aurten formatua aldatzea erabaki dute, kolektiboen indar egoera medio.

Dena den, txosna eskaintza eta egitarauaren zenbait elementu mantenduko dituzte, aurreratu dutenez. Jentilzulo kulturguneak lokala zabalik izateaz gain, ekintza gehigarriak prestatuko dituzte abuztuaren 31tik irailaren 4ra bitartean. Azpimarratu dutenez, gainera, Orozkorock elkartearekin ere ariko dira elkarlanean, “kontzertuak batera antolatu ditugu, eta horietako batzuk plazan izango dira”. Irailaren 2ko musika jaialdia da Orozkorock elkarteak sustatu duena: Cherry Boopers eta Akatz taldeen emanaldia. Gainontzeko kontzertuak Jentilzulon egingo ditu Kulturguneak, “Orozkorock ere Jentilzuloren parte baita”.

Aldaketei beldurrez baino, gogotsu heldu diete Jentilzulokoek: “Espero dugu harrera ona izatea, bai. Bi urteren ostean Jai herrikoiak eta denonak posible egiteko espazioak sustatzea oinarrizkoa da; gureak, propioak eta espazio seguruak direnak lekua izan dezaten. Horregatik hauek sustatu eta zaindu behar dira urtez urte, honelako altxor txikiak galdu ez daitezen”.

Jaietan ez ezik, urte osoko proiektu eta erronkak dituzte mahaigainean: “Jentilzulo guztiona da; ez bakarrik San Antolinetan, urte osoan zehar ere. Guztiok dugu lekua Jentilzulon, gozatzeko, ondo pasatzeko eta espazioa gurea dela sentitzeko. Dena dela, argi dugu ez direla inolako eraso sexista, arrazista ezta LGTBI+foborik onartuko: horientzako ez dago lekurik. Erdu gurera gozatzera, zulo txiki honi bizitza emanez eta denon artean zainduz”.

Hala ere, jai girorako espazioa baino gehiago izatea espero dute elkarteko kideek. “Bizi propioa duen espazio plural aizatea nahi dugu, horregatik da beharrezkoa presentzia Orozkoko jaietan”, azpimarratu dute, “parte hartzea, auzolana eta espazio alternatiboek lekua badutela defendatu nahi dugu Jentilzuloren irekierarekin sanantolinetan, jaietan egiteko eta izateko beste moduak ere badaudela erakutsiz. Beste herri batzuetara goazenean, jai herrikoien guneak bilatzen ditugun lez, Orozkok ere badu Jentilzulon alternatiba jendartearentzat”

Asteotan festak prestatzeko lanean dabiltza. Dena den, hilabeteak daramatzate sare lanean: uda aurretik hartu zuten Jentilzulo zabaltzeko erabakia.“Zergatiak eta zer egitekoak badaudela uste dugu, eta horra hor zabaltzeko arrazoia. Espazioa atondu, ekintzak lotu, txandak... Ikusten denak atzean oztondurik dagoen lan handia du, eta hori ere baloratzea oinarrizkoa da, Jentilzulo bizirik nahi izanez gero”. Irailaren atarian, ezagutzeko eta parte hartzeko mezua zabaldu dute: “Jaiak bueltan ditugu eta hain justu horregatik, parte hartzera, antolatzera, txanda bat egitera...animatu nahi ditugu herrikide guztiak. Erdu eta bultza Jentilzulo!”.

Artziniegak jaiak

Irailaren 2tik 11ra

ARGAZKIA: JOSU ZALDIBAR

Elkarrizketa

“Osasun langileontzako ohorea da herriak berak, modu honetan, omendu nahi izatea”

ENERITZ UGARRIZA LADO, MARISA FERNANDEZ DIEGO eta **NURIA PERAL LUCAS** osasun langileak izango dira Artziniegako pregoilariak. Osasun Zentroko beharginek pandemia garaian eginiko lana aitortu nahi izan du Jai Batzordeak modu horretan.



Artziniegarren osasunaren alde eginiko lanagatik omenduko zaituztete festetan. Nola eta noiz jaso zenuten berria?

Duela hilabete batzuk jaso genuen berria, lanean geundela. Joseba alkateak, Jai Batzordeak pregoilari hautatu gintuela esateko deitu gintuen, prest geunden galdetzeko. Hasieran urduritu ginen, ez baikenuen horrelakorik espero, baina egun batzuen buruan baiezkoa ematera animatu ginen.

Zer suposatzen du horrelako aitortza batek, profesional gisa?

Ohore bat da osasun langileontzako herriak berak, modu honetan, omendu nahi izatea. COVID garaian hitz politak jasotzen genituen herritarrengatik: zaindu zaitezte, animo... besteak beste. Lan karga dela eta, nekea da orain nabarmenena, gainezka egin dugu hainbat arlotan, bai emozionalki baita profesionalki ere...

Beraz, animo moduan jasotzen dira horrelako aitortzak. Herriak gurekin enpatia sentitzen duela ikusteak lanean jarraitzeko indar gehiago ematen digu.

Udaletxe zaharreko balkoitik suziria piztu beharko duzue, pregoia prestatzeaz gain. Zer pizten du horrelak aitortza batek zuengan?

Bizi izandakoaren omenaldi gisa ikusten dugu. Aurtengo suziria berezia da herritar guztientzako eta langileontzako. Pertsona eta langile moduan, guztiz aldatu gara. Ginenaren agurra eta garenaren ongi etorria bezala ikusi daiteke, era sinboliko batean..

Artziniega lantoki izateaz gain, zer da zuentzat?

Taldeko batzuentzat lantokia baino ez da, beste batzuk herriarekin lotura berezia daukagu. Osasun zentroko erizaina adibidez, urteak dira herrian bizi dela. Herritarrak beraz, auzokide eta lagunak dira askotan.

Artziniegako jaiak

“Aurtengo suziria berezia da herritar eta langile guztiontzako. Pertsona eta langile moduan, guztiz aldatu gara”

Nola biziko dituzue aurtengo Artziniegako jaiak?

Istripurik gabe, espero...(barreak)

Pregoia prest duzue jada? Zer nabarmenduko duzue?

Egia esaten badugu, ez...Ideia batzuk ditugu, baina ideia nahasiak dira. Imajinatzen dut bizipenak nabarmenduko ditugula, gure esperientziak, talde-lana...

Lekutan geratu dira 20:00etan osasun langileei egiten zitzaizkien txalo zaparradak... zuek zer txalotuko zenukete?

Pazientzia izan dutenen pazientzia txalotuko genuke. Zaintzaileen lana, auzolana, familia bakoitzeko kideen babesa, zerbitzu sozialen lana. Gure lanari dagokionez, talde lana eta gure lankideen babesa, batez ere Aiarako taldearena.

Egoera hobetu al da egun?

COVIDaren egoerari begira hobetu dela esango genuke, informazio gehiago daukagu, birusaren indarra aldatu da, txertoen onurak nabariak dira...

Alde batetik, gizartean oinarritzen bagara, txarrera egin dugula esango nuke, hazi beharrean kontrakoa gertatu da urteak pasa ahala, lehenengo hilabeteetan gizatalde moduan jokatu genuen, gero, ordea... indibidualismoa nagusitu da. Asko sufritu dugu, era ezberdinetan. Emozionalki kostatu zaigu egoera honetara behar bezala moldatzea. Gainera, bizkortasunaren mendean gaudela esan daiteke, denok dena jakin behar dugu orain, ta erantzunak berehalakoak ez direnean antsietatea agertzen da. Gainera, larritasuna areagotzen da osasuna abiapuntua denean. Ikuspuntu orokorra dela uste dugu, jendaurreko lanetan diharduen edonori galdetzen badiozu berdina erantzungo dizute. Bestalde, osasun sistemari dagokionez, herritarrek orain ikusi dute langile eta baliabide falta... Hainbat espezialitate eta frogen itxaron-zerrendak haserrea eragin dute erabiltzaileengan. Eta, horregatik, orain bai, osasun langile falta pil-pilean dago.

Mediku zareten aldetik, zein aholku emango zeniekete herritarrei festa sasoian zaintzeko?

Zaindu zaitezte, bi urte eman ditugu etxean ,eta ezin izango dugu egun batzuetan, azkenengo bi urteetan bizi ez duguna bizi. Egunerokotasunaz disfrutatu, familiaz gozatu... Pandemiak beste gabezi bat berpiztu du, osasun mentalaren garrantzia: jaietaz gozatu, baina burua galdu barik.

Egitaraua

09.02 OSTIRALA

20:30 ZURRAKAPOTEA
Goiko plaza

21:00 PREGOIA eta TXUPINAZOA
Goiko plaza

21:15 Elektrotxarangak girotutako KALEJIRA
Herrian zehar

23:30 Kontzertua; SUPERCREMALLERAS
Hiriko atea

01:30 KULERO ETA GALTZONTZILO LASTERKETA

02:30 ERRUKI ERROMERIA
Hiriko atea

09.03 LARUNBATA

12:00 PINTXO TXAPELKETA

14:30 Trikitilariek girotutako INDABADA

23:30 IGEL-TOKA TXAPELKETA

23:30 BONBONA ETA GARRAFA LASTERKETA MUNDIALA
Goienkale

22:00 PLAYBACK lehiaketa

00:00 Kontzertua; HABANA 357
Hiriko atea

02:00 UNAI BDJ
Hiriko atea

09.04 IGANDEA

10:00 MOTOKROS KLASIKOA
Arteko Gure Amaren zelaia

11:45 ENKANTEA
Arteko GureAmaren santutegia

18:00 KRONOESCALADA
Iturritik iturrira

19:30 NAFAR JOTAK, Acordes taldearen eskutik

21:00 BERAKATZ ZOPA jana
Artekale

09.05 ASTELEHENA

14:30 PAELLA JANA
Toñin Luengas frontoia

164:30 JOLASAK

17:30 GIZA FUTBOLINA

19:00 XUXURLARI

22:30 DJ VITHI
Hiriko atea

09.06 ASTEARTEA

17:00 MULTIABENTURA
Garai plaza

09.07 ASTEAZKENA

11:00 TABERNAZ TABERNA poteoa

11:30 TXOKOLATADA

11:30 PUZGARRIAK
Toñin Luengas frontoia

14:30 HERRI BAZKARIA
Arteko Gure Amaren zelaia

16:00 MUS TXAPELKETAren hasiera
Toñin Luengas frontoia

17:00 Haurrentzako DISKOFESTA
Artekale

18:30 Haurrentzako APAR FESTA eta DANK-TUK erakusketa
Artekale

18:30 ARABAKO AINTZINAKO MUSIKA
Santutegia

Artziniegako jaiak

09.08 OSTEGUNA

12:00 MEZA NAGUSIA
Arteko Gure Amaren santutegia

14:30 PAELLA BAZKARIA eta BINGOA
Toñin Luengas frontoia

19:00 Kontzertua; LOS CINCO BILBAINOS

09.09 OSTIRALA

19:00 ARTZIKIROL FINALA

21:00 KUADRILLEN AFARIA
Barrenkale

23:30 Kontzertua, LA REGALIZ (La Raiz taldearen bertsioak joko dituzte)
Hiriko atea

01:30 KRESALA BERBENA
Hiriko atea

09.10 LARUNBATA

14:00 HERRI BAZKARIA
Arteko Gure Amaren zelaia

19:00 Arteko Amaren omenezko SALBEA
Arteko Gure Amaren zelaia

19:30 Santutegitik jaitsiera EL DESPISTE FANFARREArekin
Arteko Gure Amaren zelaia

20:00, Kontzertua NOVENTHONES

21:30 PILOTA PARTIDAK
Toñin Luengas frontoia

00:30 Kontzertua, MUGAN
Hiriko atea

02:00 DJ
Hiriko atea

09.11 IGANDEA

09:00 TORTILLA ETA MARMITAKO TXAPELKETA
Goiko plaza

11:00 XXX. ARTEKO GURE AMA SARIA, Txirrindularitza lasterketa

17:30 HERRI KIROL erakustaldia
Garai plaza

18:00 KUADRILLEN ARTEKO HERRI KIROL PROBAK
Garai plaza

18:00 ODOLOSTE DASTATZEA
Goiko plaza

20:00 KOLDO ERROMERIA
Goiko plaza

21:00 INTERKUADRILLA SARI BANAKETA
Goiko plaza

22:00 JAIETAKO AMAIERA TRAKA

Antzinako azoka

Antzinako Azokan parte hartzeko deia, bi urteren ostean

INDABERRITUTA ITZULIKO DA ARTZINIEGAKO ANTZINAKO AZOKA IRAILAREN 17AN. MERKATUAREN BATZORDEAK HERRITAR ORORI LUZATU DIO EGUNEAN PARTE HARTZEKO DEIA.

ARGAZKIA: JOSU ZALDIBAR

Duela bi urte ospatu zen azkenekoz Artziniegako Antzinako Azoka. COVID-19aren pandemia ondoriozko etenaldiaren ostean, ekimenaren edizio berria prestatzeari ekin dio bizilagun talde batek.

Berrituta itzuliko da azoka irailaren 17an, hausnarketa prozesu bat egin baitute egitasmoa birpentsatzeko. Apirilean hasi ziren bilerak egiten, Udalak deituta. Lehen hartu-eman horietatik sortu zen merkatua antolatzeko batzordea, eta talde eragile horrek hartu du bere gain azokaren antolakuntza.

Orain, merkatuan parte hartu nahi duen jendearen bila hasi da batzordea. Horregatik, bizilagunei luzatu diete jaiaren antolakuntzan "edozein modutan" laguntzeko gonbita, "postuak jartzen, animazioa antolatzen edo dekorazioa prestatzen, besteak beste". Iragan uztailaren 27an egin zuten horretarako bilera, baina posta elektroniko bat ere jarri dute, interesa duen edonoren eskura: antzinako.artziniega@gmail.com.

Duela 25 urte antolatu zuten azoka lehenbiziko aldiz, Artziniega Museoaren ekimenez, eta eragile horre antolatu zituen lehen hiru edizioak. Bolaretxe kuadrillak hartu zuen lekukoa gero, eta ondoren beste hainbat eskutatik igaro da ekimena prestatzearen ardura: Udalak hartu zuen bere gain lehenbizi, ostalari talde batek gero, eta tokiko erakundearen esku geratu zen berriz duela 4 urte.

Artziniegako jaiak

AIARALDEA KOMUNIKABIDE FAKTORIA
Jarrai gaitzazu!
erredakzioa@aiaraldea.eus
688 84 81 52

BAIMENDUN INSTALATZAILEA
Iturgintza - Berogailua - Gasa - Aire girotua
CASTRO
David Castro
Zoru erradiatzaileen eta Aerotermiaren instalatzailea
IG-B gas instalatzailea
Instalazio termikoen kokatzea eta mantenua
Iturgintza instalatzailea
Elexondo 24, Amurrio (Araba) · kaxyus@hotmail.com
676 02 33 93 · 685 26 69 31 · 669 15 41 52
www.fontaneriacastro.com

PIRINEUM TABERNA
Musika zuzenean · Guinnes kañeroa
Pirinioetako garagardoak
Barrenkale 29, ARTZINIEGA

hitz zentroa
LOGOPEDIA / PEDAGOGIA
FISIOTERAPIA PEDIATRIKOA
OSASUN OROKORREKO PSIKOLOGIA
SEXOLOGIA KLINIKOA
PROFESIONAL EUSKALDUNAK ZURE ZERBITZURA
Arreta goiztiarra (0-6 urte)
Karmen kalea 39, 01400 LAUDIO hitz.zentroa@gmail.com
Tel.: 94 672 63 91 / 656 74 27 22

1929 urtetik
LA ENCINA RESTAURANTE
Astelehenetik ostiralera
eguneko menuak
Artziniegako hiribilduko 750. urteurreneko pintxoaren irabazlea
Garay hiribidea, 4 Artziniega (Araba)
ERRESERBATZEAK: 945 39 60 40 / 945 39 62 55

Eguzkilore
945 10 52 43
Garai hiribidea 4 ARTZINIEGA

Embutidos ARCENIEGA
Zaporea eta tradizioa 1940tik
Barbakoetarako, eltzekoetarako, pintxoetarako, patatekin, sagardotan, bakarrik edota arrautzekin... nahieran!
Amezola etorbidea 14, ARTZINIEGA · 945 39 60 05 www.embutidosarceniega.com

ZUTOIN PODOLOGIA LAUDIO
OINEN ZAINTZA INTEGRALA
- Podologia pediatrikoa
- Azterketa biomekanikoa + 3D barne-zola
- Podologia onkologikoa
- Kirurgia

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
KARMEN KALEA 15, 1.solairua LAUDIO
94 672 52 57
laudiopodologia@gmail.com

Bar Montenegro
Benta auzoa 9, ARTZINIEGA
945 39 63 23

pa plaza amurrio,sa
ERAIKUNTZARAKO HORNIGAIAK
zure estiloa eraikiz, zure etxea sortzen
Zankueta industrialdea, Larrinbe 945 89 02 93
www.plazaamurrio.com

HELLO LAUDIO!

HALLO LAUDIO!

SALUT LAUDIO!

HIZKUNTZA BAT IKASI BEHAR DUZU?

ZATOZ!

2022-2023 MATRIKULA

IZEN - EMATEAK: www.fundacionidiomas.eus

Idiomas

FUNDACIÓN Vital FUNDAZIOA

www.fundacionidiomas.eus